

2019ko Memoria



Euskara Arloa



AURKIBIDEA.-

00. ANTOLAKETA OROKORRA

01. Planak
02. Batzorde aholkulariak
03. Antolaketa
04. Aurrekontua
05. Kalitatea hobetzeko tresnak
06. Ordenantza aldaketa

01. BARNE NORMALIZAZIOA

01. Kudeaketa-Plana
02. Saisetako planak
03. Trebakuntza saioak udaltzaingoan
04. Komunikazioak sailetan
05. San Andres Fundazioko plana
06. Lan-mahaia
07. Zuzenketa-Aholkularitza
08. Lanpostuei hizkuntza eskakizuna ezarri
09. Langileen eskolaratzea
10. HE akreditazio probak
11. Langileen harrera
12. Euskarazko baliabide informatikoak
13. Batzordeetako hizkuntza
14. Kontratuen jarraipena
15. Dirulaguntzen jarraipena
16. Ordenantzaren jarraipena
17. Euskararen eguna udaletxean
18. Bost minutuko ikastaroak
19. Modela itzultzailea
20. Administrazioen arteko harremanetan euskararen erabilera areagotzeko proiektua.
21. Jendaurreko ekitaldiak

02. EUSKARAREN SUSTAPENERAKO EKINTZA PLANA

01. *Zorionak* diptikoa
02. Euskarazko Produktuen Katalogoa
03. *Hazi Hezi* aldizkariaren banaketa
04. Guraso tailerrak *Bularretik mintzora*
05. *Kalian jolasian eta musika auzoz auzo*
06. Infografia familia hizkuntza ume eleanitzak
07. HH eta LHko ikastetxeekin lankidetzak bilerak
08. DBH, Batxilergoa eta LHko ikastetxeekin lankidetzak bilerak
09. Lanbide heziketako ikastetxeekin lankidetzak bilerak
10. *Bularretik mintzora*
11. *Gu ere bertsoan* 2018-2019
12. Umeen bertso jaialdia
13. *Euskararen baloia*
14. Euskara zine aretoetara 2018-2019
15. *Tramankuluak ikasgelan*

16. *Ongi etorri euskarara*
17. Antzezlanetarako sarrerak oparitan
18. *Txikitasunean haundi* motibazio saioak DBH1
19. *Zergatik ez* motibazio saioak batxilergoa
20. *Bagabigahiga* emanaldia
21. Motibazio saioak lanbide heziketa
22. Barnetegia DBH 2
23. *Gurasoak ere eskolara* egitasmoa 2019-2020
24. Euskaltegien lehiaketa: Mikroipuinen lehiaketa
25. Filmazpit
26. Sentsibilizazio saioak aisialdi eta kiroleko begiraleentzat
27. Multikirolak 2018-2019
28. Korrika
29. Transmisio mintegia
30. Bertso final laurdenak
31. Eibarko euskara.eus
32. Errenta aitortpena euskaraz *1.500 baietz* kanpaina
33. Juan San Martin beka 2019
34. UEU diru-laguntza deialdia
35. Euskara diru-laguntza izendunak
36. Dirulaguntza Errotuloak euskaraz

03. AKEBAI

01. Akekideen erregistroa
02. Akekideen Batzarra
03. Ekipoa
04. Kultura mahaia
05. Transmisio mahaia
06. Euskal eskaintzaren zabalkundea
07. Hamaika berbaldi
08. Musikala
09. Eusliderrak
10. Jaietan Ahobizi eta Belarriprest
11. *Jira bueltan* materialaren lanketa
12. Debabarreneko euskararen ginkana
13. Familien hizkuntza egoeraren diagnosia
14. Super Akeak
15. Eibarren aniztasuna ikasgai: 101 ele
16. Euskararen eguna
17. Euskararen ordenantza berresteko adierazpena
18. *Euskaraldia*
19. *Korrika*


04. UDAL EUSKALTEGIA

01. Plantila
02. Eskaintza
03. Matrikula epeak eta egutegia
04. Tasak eta tarifa bereziak
05. Taldeak, orduak eta ikasle kopurua
06. Ikaslearen profila
07. Kanpo ekintzak
08. Liburutegi zerbitzua
09. Egiaztatzegintza
10. HABEren aztertzaileak
11. Formazioa
12. Armeria eskola

IZENBURUA: EUSKARA ARLOAREN PLANAK

DESKRIBAPENA: Euskara Arloak honako plan hauek ditu indarrean:

- ESEP Euskararen Sustapenerako Ekintza Plana 2018-2022
- Barne Erabilera Plana 2018-2022
- Eibarko Hiria, Euskararen Plan Estrategikoa 2016-2025 (AKEBAI)
- Udal Euskaltegiaren 2019-2020 ikasturteko plana



EPEA: 2019

GASTUA: Euskara Arloaren aurrekontu osoa

BALORAZIOA:

Euskararen erabilera normalizatzeko VI plangintzaldia 2018ko urriaren 29an eman du ontzat Udalbatzak. ESEP plangintzaldi berria euskara batzordean aurkeztu eta ontzat eman da. ESEPen kasuan ez da balorazio berezirik egin, AKEBAI martxan jartzeko egin zelako.

Udal euskaltegiak ikasturtekako plana eta memoria egiten du.

IZENBURUA: BATZORDE AHOLKULARIAK

DESKRIBAPENA: Euskara Arloak indarrean dituen planen jarraipena bi batzorde aholkularitan egiten da:



Euskara Batzordea:

- Presidentea, PSE-EEko zinegotzia.
- PSE-EEko zinegotzi bat.
- EH Bilduko zinegotzi bat
- EAJko zinegotzi bat
- Irabaziko zinegotzi bat/ Elkarrekin Eibar/Podemos
- Udal Euskaltegiko zuzendaria
- Idazkaria, Euskara Arloko zuzendaria

2019an Udal hauteskundeak izan direnez Euskara Batzordearen funtzionamenduan aldaketak izan dira, eta irailetik aurrera hilean behin egin dira, beti hilaren 4. Asteartean 12:00etan.

ESEP eta AKEBAIko gaien jarraipena egiten da. Udal Euskaltegiaren funtzionamenduaren jarraipena ere egiten da.

ENBA:

- Batzordeburua, PSE-EEko zinegotzia
- PSE-EEko zinegotzi bat.
- EH Bilduko zinegotzi bat
- EAJko zinegotzi bat
- Irabaziko zinegotzi bat/ Elkarrekin Eibar/Podemos
- Langileen batzordearen ordezkaria
- Langileria eta Antolamendu saileko arduraduna

- Hizkuntza normalizatzailea
- Formazio teknikaria
- Idazkaria, Euskara Arloko Zuzendaria

Ez dauka maiztasun zehatzik, baina urtean 3-4 batzar egiten dira, astearteetan 12:30ean.

Barne Erabilera planaren jarraipena egiten da.

EPEA: 2019

GASTUA: Barne baliabideak eta zinegotzien dietak

BALORAZIOA:

Euskara Batzordea: 14 batzorde egin dira, 66 gai landu dira.

ENBA: 5 batzorde egin dira, 18 gai landu dira.

IZENBURUA: EUSKARA ARLOAREN ANTOLAKETA

DESKRIBAPENA: Euskara Arloa bi zerbitzutan banatuta dago:

Euskara zerbitzua eta Udal Euskaltegia. Guztira 12 lagun gaude.



Kargua	Oharrak
Arloko Zuzendaria eta euskara teknikaria	
Barne normalizatzailea	
Trebatzaile/ Itzultzaile	Itzulpen zerbitzurako lanean
Euskara Formakuntza	Pertsonal sailerako lanean
AKEBAI dinamizatzailea	
Euskaltegiko zuzendaria	
Idazkari Akademikoa	
Irakasleak:	
<ul style="list-style-type: none"> - 3, plantilakoak lanaldi osoz - 1, plantilakoa, egun erdiz lanean uztaile arte. Irailetik aurrera lanaldiaren 2/3 - 1, aldi baterako egun osoz. - 2, aldi baterako, egun erdiz 	
Administraria	

EPEA: 2019

GASTUA: 656.301,20 €

BALORAZIOA:

Udal euskaltegirako bi irakasle kontratatu behar izan dira aldi baterako urtarriletik ekainera 2 irakasle kontratatu dira egun erdiz, eta irailtik abendura bitartean bat egun erdiz eta bestea egun osoz.

IZENBURUA: **EUSKARA ARLOAREN AURREKONTUA**

DESKRIBAPENA: Euskara Arloa bi zerbitzutan banatuta dago:



EPEA: 2019

GASTUA:

	DIRU-SARRERAK	GASTUAK
EUSKARA ARLOA	335.816,47€	1.010.310,09€
• Euskara Zerbitzua	13.908,00 €	411.331,82€
• Euskaltegia	321.908,47 €	598.978,27 €

IZENBURUA: KALITATEA HOBETZEKO TRESNAK

DESKRIBAPENA: Euskara Arloa (Udal Euskaltegia eta Euskara Zerbitzua) etengabe ari da kalitatea hobetzen, horretarako hainbat lan egin ditu urtean zehar:

- **Langileen etengabeko formazioa:** eguneratzeko eta udaleko gainerako zerbitzuei, herritarrei eta euskaltegiko ikasleei zerbitzu ona eman ahal izateko.



- **Lankidetzak: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika sailburuordetzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundian Udalekin** egitasmoaren barruan lankidetzan jarduten da
- **Euskaltegian Curriculum:** HABEren aginduari jarraituz Euskaltegiak curriculum berria diseinatu du eta ondoren HABEren oniritzia jaso du. Hala ere, hori hobetzen jarraituko du.
- **Zerbitzuen Karta:** Euskara Zerbitzuak eta Udal Euskaltegiak 2018tik zerbitzuen kartak egin dituzte. Horietan eskaintzen diren zerbitzuen berri ematen die herritarrei. Gainera, zerbitzu horiek aurrera eramateko konpromiso batzuk hartu dira kalitatea oinarri direla. Konpromiso horien betetze-maila, aldiro-aldiro neurtuko da eta neurri zuzentzaileak hartuko dira.

EPEA: 2019

IZENBURUA: **ORDENANTZA ALDATZEA**

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Euskararen Ordenantza du indarrean 2016ko ekainetik. Ordenantza horren betetze mailaren jarraipena egiten da ENBA eta Euskara Batzordean. Azken batzarretako balorazioak kontuan izanik Euskara Batzordeak Ordenantzako atal batzuk aldatzea proposatzen du.


EGUNA: 2019ko apirilaren 29an Udalbatzak ontzat emana

BALORAZIOA: Ordenantza berria 2019ko ekainaren 28an sartu da indarrean. Ikusi [HEMEN](#) testu osoa



IZENBURUA: KUDEAKETA-PLANA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalean euskararen erabilera normalizatzeko planari dagokion 2019ko kudeaketa-plana.



EPEA: 2019


GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

10 ekintza nagusi (helburu izar) aurreikusi ziren eta horietatik 5 egin dira, 3 erdizka egin dira eta 2 ez dira egin. Ikusi [memoria](#).

IZENBURUA: SAILETAKO PLANAK

DESKRIBAPENA: Sailez sail euskara plantxoak edo mikroplanak egin ditugu eta horietan jarritako helburuak lortzeko ekintzak zehaztu.



EPEA: 2019

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Euskara sailak proposatutako ekintza zerrenda batetik erabaki du sail bakoitzak zein ekintza jaso urteko plantxoan. Sail hauetan zehaztu dira ekintzak:

- Alkatetza
- Diruzaintza
- Garapen ekonomikoa
- Gizartekintza
- Hirigintza
- Kontuhartzailtza
- Kultura
- Liburutegia
- Museoa
- Obrak
- Pegora
- Pertsonal eta antolamendua
- Udaltzaingoa
- Zerbitzuak

IZENBURUA: TREBAKUNTZA SAIOAK UDALTZAINGOAN

DESKRIBAPENA: Udaltzaingoarentzako planaren barruan kokatu dira udaltzaintzak trebakuntza saio hauek.



EPEA: 2019

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Leihatilan egoten diren txanda arduradunentzako saioak egin dira 2019ko ekainean hasita, honako hauek lantzeko: mintzamina (jendurrean eman beharreko azalpenak, lanari lotutako azalpenak, herritarrei azalpenak eta argibideak ematea), lanari lotutako hiztegia, brifinetan eman beharreko azalpenak, eta parteak eta intzidentzia liburua euskaraz idazten hastea.

Euskara zerbitzu-hizkuntza izan dadin bermatzeaz gain, saio hauekin lan-hizkuntza gisa euskararen erabilera areagotzea bilatu nahi izan da.

6 arduradun aritu dira bi taldetan banatuta. Talde batekoek 15 saio egin dituzte eta bestekoek 8.

Saioak euskara normalizatzaileak eman ditu.

Gainerako agenteekin eta subjefearekin saioak egiteko asmoa bazegoen ere, ez dira martxan jarri aurtengo urtean aldaketa asko gertatu baitira udaltzaingoaren plantilan.

IZENBURUA: KOMUNIKAZIOAK SAILETAN

DESKRIBAPENA: Batzarrak egin dira sailetako langileekin edo horien ordezkariekin sailetan mikroplanak egitea sustatzeko, ekimenak bideratzeko eta eskura jarri diren baliabideak azaltzeko.



EPEA: 2019

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Urte hasieran bilerak egin dira saileko plantxoko ekintzak zehazteko hauekin: Pegorako langileak, Museoko arduraduna, Kontuhartzaitzako zenbait lagun, alkatetzako idazkaria, informatikako kideak, kultura, Obrak eta hirigintzako langileak.

Euskararen egunaren antolaketaren inguruan eta Modela itzultzaile automatikoa erakusteko ere bildu gara sailetako langileekin.

IZENBURUA: SAN ANDRES FUNDAZIOKO PLANA

DESKRIBAPENA: 2019rako ekintzak zehaztu ditugu eta horiek egin ditugu: testuak berrikusi eta euskaratu, sentsibilizazio eta trebakuntza saioak.



EPEA: 2019 urtea

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

2018an sortutako euskararen lan mahaiak 4 batzar egin ditu 2019an, non kudeaketa planeko ekintzak eta helburuak zehaztu diren eta planari jarraipena egin zaion. Ekintza hauek egin dira, besteak beste:

- Trebakuntza saioak:

Harreragileak: Jarraipena eman zaio aurreko urtean hasitako trebakuntzari. Aurten 12 saio jaso dituzte eta trebatu dira aurrez aurreko eta telefono bidezko harreran.

Superbisorea: 12 saio hartu ditu. Landu ditu egoiliar eta haien familiekiko harremanak (batez ere ahozkoak), praktikatu ditu egoitzaren eta bertako lanaren gaineko azalpenak eta ikasi du lanari lotutako hiztegia.

*gainera, langileetako batzuk euskaltegian ibili dira.

- Sentsibilizazio saioak:

4 saio egin dira eta 40 lagun inguruk hartu dute parte. Saioen helburua izan da egoitzako euskara planaren helburuez eta euskaraz egitearen garrantziaz jabetzea. Halaber, euskararen erabilera normalizatzeko bidean ze portaera izan behar duten ikusaraztea.

Horiez gain, hauek ere egin dira: mostradore eta mahai gainetan jartzeko *Nirekin nahi baduzu euskaraz* modukoak eta paparrean eramateko txapa identifikagarriak sortu dituzte; hizkuntza irizpideak gainbegiratu dituzte eta euskarari lehentasuna nola eman jaso dute; egoiliarren hizkuntza jaso dute aplikazioan eta zenbait fitxatan; eta euskararen txokoa sortu dute euskararen gaineko informazioa biltzeko.

IZENBURUA: LAN-MAHAIA

DESKRIBAPENA: Udal-sailetako ordezkariak osatutako mahai teknikoa da. Helburua: Euskara planaren garapenaren jarraipena egitea sailka; hartu beharreko neurriak proposatzea, lehentasunak zehaztea, eta aurrera eramango diren normalizazio-ekintzak adostea, ENBAri proposatzeko.



EPEA: 2019

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Hauek dira mahaiaren partaidea duten sailak: Obrak, Liburutegia, Diruzaintza, Pertsonala eta Antolamendua, Udaltzaingoa, Gizartekintza, Hirigintza, Kontuhartzailtza, Kultura, Alkatetza, Zerbitzuak, Euskaltegia eta euskara, Brigada.

Lau batzar egin dira urtean zehar, eta asistentzia % 57koa izan da.

Aurten, 2018ko kudeaketa planaren ebaluaziotik abiatuta, 2019ko ekintzak adostu dira eta mahai honetan azaldu eta kontrastatu dira sailetako ordezkariekin. Hauek izan dira aurten izan ditugun hizpideak: sailetako planak eta haietan jasotako ekintzak, 2018ko Euskaraldiaren balorazioa eta 2020rako prestatzen ari dena, idatzien sailkapena, Modela itzultzaile automatikoa, Euskararen eguna...

IZENBURUA: ZUZENKETA-AHOLKULARITZA

DESKRIBAPENA: Udal-sailetako langileei testuak euskaraz sortzen laguntzea, haiek idatzitakoak zuzentzea eta euskaraz lan egiteko lagungarriak diren baliabideen berri ematea.



EPEA: 2019

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Zuzenketa zerbitzua

Testuak zuzendu edo itzultzen laguntzeko egindako eskaerak 361 izan dira; denak barrukoak, bat izan ezik.

Zuzenketak: % 45

Itzulpenak: % 49

Zalantzak argitzeko egindako eskaerak: % 5

18 sail ezberdinetako testuak gainbegiratu dira.

Aholkularitza eta euskaraz lan egiteko baliabideen gaineko informazioa

Gehienetan, e-maila bitartez eskuratu zaie langileei astelehenetako 5 minutuko ikastaroetan: hizkuntzaren gaineko zalantzak, ohiko akatsak, ariketa errazak, Interneten aurki daitezkeenak, irakurgaiak udako oporraldian, euskarazko ekitaldien agenda...

Horiez gain, euskaltegian antolatzen diren ikastaro eta bestelako ekitaldien gaineko informazioa eta hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko deialdien ingurukoak ere jakinarazi zaizkie langileei.

IZENBURUA: LANPOSTUEI HIZKUNTZA ESKAKIZUNA EZARRI

DESKRIBAPENA: Udaleko lanpostuei, brigadakoei izan ezik, egiteko eta funtzioen araberako hizkuntza eskakizuna ezarri behar zaie. Horretarako protokolo bat dago onartua.

Ikusi [HEMEN](#) protokoloa.



EPEA: 2019

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

2019an 5 lanposturi ezarri zaie HE: lanpostu bat Musika Eskolako da, eta gainerako 4 lanpostuak, San Andres Fundazioakoak.

LANBIDEREren bidez egin diren aldi baterako kontratazioetan, 9 eskaintzatan betebeharreko baldintza izan da HE, eta 15 lanpostutan (peoi lanpostuetan), baloratu egin da euskararen ezagutza.

IZENBURUA: LANGILEEN ESKOLARATZEA

DESKRIBAPENA: udaletxeko langileek eta fundazio eta patronatoetakoek euskalduntze ikastaroak IVAPen edo udalaren kontura egiteko aukera izaten dute.

Horretarako ENBAn onartutako [araudia](#) bete behar da



EPEA: 2018-2019 ikasturtea

GASTUA:


BALORAZIOA:

2018-2019 ikasturtean 25 langile matrikulatu dira: 16 langile IVAPen kontura , eta 9 langile Udalaren kontura . Ikasturtean zehar 6 baja izan dira. Orokorrean, langileen jarrera/aprobetxamendua ona izan da.

Ikusi [hemen](#) informazio zehaztua.

IZENBURUA: HE AKREDITAZIO PROBAK

DESKRIBAPENA: udaletxeko eta fundazio eta patronatoetako langileak IVAPek egiten dituen hizkuntza probetara joateko tramitazioa egiten da urtean bi deialditan.



EPEA: 2019

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Lehenengo deialdian 24 eskaera bidali dira IVAPera. Horietatik 15 langile aurkeztu dira, eta emaitzak honako hauek izan dira:

- GAI: 5
- EZ GAI: 10

Bigarren deialdian, 6 eskaera bidali dira, eta emaitzak honako hauek izan dira:

- GAI: 1
- EZ GAI: 2

IZENBURUA: EUSKARAZKO BALIABIDE INFORMATIKOAK

DESKRIBAPENA: Barne erabilera planean jasotako ekintza bat da era mailakatuan tresna eta aplikazio informatikoak (Office paketea) euskaraz instalatzea langileen ordenagailuetan. Horretarako plana diseinatu da.



EPEA: 2019

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

2019ko urtarrilean informatika saileko lankideekin adostu zen jardunbidea:

- Langile berriei Windowsa eta Office paketea (word, outlook , excel eta power pointa) defektuz jarriko zaie 3HE eta 4HE baldin badute.
- 2HE dutenei Windowsa jarriko zaie eta galdetuko zaie ea nahi duten Officea ere jartzea.
- Gainerako langileen ekipoak aldatzean ere berdin jokatuko da.

Jarraibideak argiak izan arren, batzuetan ez da behar bezala bete, ekipoak prestatzen dituztenek ez dutelako beti jakin langile hasi berriaren hizkuntza gaitasuna zein den. 2020an prozedura hobetu beharko da. Gainerako langileen ekipoak berritzean, bete da eta zenbaiti jarri zaie euskarazko bertsioa.

IZENBURUA: BATZORDEETAKO HIZKUNTZA

DESKRIBAPENA: Agintaldi berrian batzordeak osatzean, ENBA batzordetik proposamena egiten zaie, bai batzorde aholkulariei, bai lan-batzordeei, zein hizkuntza erabiliko duten erabaki dezaten



EPEA: 2019ko iraila

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

18 batzordetara bidali zen diktamena.

Erdiek erabaki dute zein hizkuntza erabiliko duten.

Ahozko hizkuntzari dagokionez, lauk euskara erabiliko dute (gizarte zerbitzuen batzordeak, Nagusien batzordeak, Euskarak eta ENBAk), bik euskara eta gaztelania (Ego Ibarrek eta Garapen ekonomikoa, enplegua eta berrikuntza batzordeak) eta hiruk nagusiki gaztelania (Hirigintza, Ingurumena eta Obrak batzordeak).

Deiak eta aktak egiteko erabili beharreko hizkuntzari dagokionez, euskara hutsean egingo dituzten 3 batzordek izan ezik (Euskara, Enba eta Ego Ibarra), ele bietan egitea adostu dute. Garapen ekonomikoa, enplegua eta berrikuntza batzordeak aktak gaztelaniaz egitea erabaki du.

IZENBURUA: KONTRATUEN JARRAIPENA

DESKRIBAPENA: Udalak egiten dituen kontratueta jartzen diren hizkuntza-irizpideen betetzearen jarraipena egiten da.

Eibarko udaleko *Kontratatzaillearen profila* ataleko eta *Kontratuen erregistroa* web orriko informazioa erabiltzen dugu kontratuen berri izateko. Zenbaitetan kontratuen ardura dutenak jartzen dira gurekin harremanetan zer-nolako hizkuntza-irizpideak jarri behar dituzten aztertzeko.

Kontratu batzuk *KontratuZain* aplikazio informatikoan sartzen ditugu eta bertan zehazten dugu, kontratu mota eta luzeraren arabera, zeintzuen jarraipena egingo dugun eta noiz.

Jarraipena egiteko orduan, kontratuaren arduradunari galdetzen diogu jarritako irizpideen betetze-mailaren inguruan.



EPEA: 2019

GASTUA: barne-baliabideak

BALORAZIOA: 69 kontratu zenbatu dira aurten:

- Zerbitzu kontratuak eta Zerbitzu publikoak kudeatzekoak 35 (horietako 17 KontratuZainen)
- Obra kontratuak: 19 (denak KontratuZainen)
- Hornidura kontratuak: 15 (horietako 10 KontratuZainen)

Zerbitzu kontratuak eta Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak:

Batzuk negoziatuak publizitaterik gabe dira edo esparru akordiotik eratorriak. Horietan hizkuntza baldintzarik ez. Gainerakoetan jartzen dira.

Aurten 7 kontraturen neurketa eginda (beste bat egin gabe gelditu da oraindik amaitu gabe baitago). Gainerakoei ez zaie neurketarik egin arrazoi hauek direla eta:

- 2020an zehar egingo da
- Kontratu ematean adjudikatzaileak ez duelako harreman zuzenik izango herritarrekin

Bi kontratutan ez da ezarritakoa bete, zerbitzua eman behar dutenek ez dutelako behar adinako gaitasunik: *Eibarko sustapen eta dinamizazio ekonomikoaren plan integrala egiteko laguntza teknikoa* eta *Etxez etxeko zerbitzua*. Bigarren kasu horretan esan behar da urrian 12 langile hastekoak zirela euskara ikasten.

Beste hiru kontratutan sumatu dira gabeziak ez direlako hizkuntza irizpide egokiak jarri: *Haurrentzako jarduerak-Gabonetako kanpaina*, *Prestakuntza ekintza bi...*, eta *Zapatuetako tailerrak*.

Obra kontratuak:

Errotulazioari dagokion betebeharra jartzen zaie. Ez da jarraipenik egiten.

Hornidura kontratuak:

Lautan bakarrik ezarri dira hizkuntza baldintzak. Ez da jarraipenik egin.

Egindako kontratuen erregistroa [hemen](#).

Kontratu zainen egindako neurketen arabera betetze maila:

 Kontratuak ▾ Enpresak ▾ Emailtzak ▾ Gobernua ▾

Argibideak ▾ Saioa bukatu (k. bikunna)

/ Sarrera / Kontratu motak / Emailza

Kontratu motaren arabera, gurean

Urtea ▾ Denak

Hemen erakusten den emailza **indarrean dauden kontratu**ei dagokie. Indarrean dauden kontratuetan aintzat hartzen den neurketa amaitutzat emandako azken neurraldiarena da, beraz, neurraldia azken urtekoa izan beharrean aurreko urte batekoa izan daiteke.

Kontratu mota	Kontratuak indarrean	Betetze maila	Batez beste	Lanp. betetzeko	Lanp. beteta	Lanpostuak <input type="checkbox"/>
1 Obra-kontratuak	7	-	-	-	-	-
2 Hornidura kontratuak	3	-	-	-	-	-
3 Zerbitzu-kontratuak	12	%58.39	2.49	7	5	%71.43
4 Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak	1	-	-	-	-	-
5 Herri-lanen emakidak	-	-	-	-	-	-

   **KAM Telekomunikazio Aholkularitza**
Guk asmatuko dugu nola! 

IZENBURUA: DIRULAGUNTZEN JARRAIPENA

DESKRIBAPENA: Udalak ematen dituen dirulaguntzetan hizkuntza-irizpideak jartzen diren jarraitzen dugu.



DIRULAGUNTZAK

EPEA: 2019

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

95 dirulaguntzen jarraipena egin dugu.

Guztiak ele bietan argitaratu dira.

Hizkuntza-baldintzak jarri dira dirulaguntza izendunen % 93,7an eta norgehiagoka araubidez emandakoen % 83an.

Ez da hizkuntza-baldintzarik jarri, ez ebaluazio bakoiztu bidez emandakoetan, ez alderdi politikoei emandakoetan.

IZENBURUA: ORDENANTZAREN JARRAIPENA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Euskararen Ordenantza du indarrean 2016ko ekainetik. Ordenantza horren betetze-mailaren jarraipena egiten da ENBA eta Euskara Batzordean. ENBA udal barruko eta erakunde autonomoei dagokiena eta Euskara Batzordean udalerriko neurriei dagokiena.



EPEA: 2019

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

2020 hasieran egin zaie jarraipena Euskararen Ordenantzaren zenbait adierazleri.

Egindako jarraipena kontsultatzeko [2019ko jarraipena](#)

IZENBURUA: EUSKARAREN EGUNA UDALETXEAN

DESKRIBAPENA: Euskararen eguna aitzakia hartuta ekimenen bat bultzatu sentsibilizazioan eta euskararen erabileran eragiteko.



EPEA: 2019ko abenduaren 3a

GASTUA: Barne-baliabideak; luntxa eta armiarma sarea egiteko hariak (390 €)

BALORAZIOA:

Abenduaren 3an, goizeko 8etan Armiarma Sarea osatu genuen udaletxeko patioan, Euskaraldiko taldeak eta Eibarko euskalgintzak bultzatu zuten ekimena geure eginez.

Arratsaldeko ordu bi eta erdietan asteen zehar jokaturako Egunean behin partidako irabazleei saria eman zitzaien eta Lau teilatu abestu genuen *Eitbren* egitasmoarekin bat egiteko.

Ondoren, piskolabisa izan genuen udaletxeko patioan.

IZENBURUA: BOST MINUTUKO IKASTAROAK

DESKRIBAPENA: Astero e-mailez hizkuntzaren gaineko azalpen motzak bidaliko zaizkie langileei: maiz egiten diren akatsen gaineko oharrak, hiztegia, Interneten dauden baliabideak...

5 minutuko ikastaroak
5 minutuko ikastaroak
5 minutuko ikastaroak

EPEA: 2019

GASTUA: Barne-baliabideak


BALORAZIOA:

Urteko 34 astelehenetan iritsi zaizkie langileei euskararen inguruko mezuak posta elektronikoz.

Azalpen asko gaizki erabiltzen ditugun edo arazotsuak izaten diren euskarazko egituren ingurukoak izan dira. Beste batzuek lexiko kontuak azaldu dituzte, ortografia eta puntuazio egokiari buruzko argibideak eta testu mota jakin batzuk egoki sortzeko aholkuak. Zenbaitetan ariketak egitea ere proposatu zaie, eta kontsultak egiteko Interneten eskuragarri dauden baliabideak ere aurkeztu zaizkie.

IZENBURUA: MODELA ITZULTZAILEA

DESKRIBAPENA: Modela itzultzaile automatikoa eskura jarriko zaie langileei proba gisa.



EPEA: 2019ko urria-abendua

GASTUA: 907,5 €, BEZa barne

BALORAZIOA:

Aldez aurretik aztertu zen zein sailetan eta zein langilek erabiltzen zuten zuzenketa-aholkularitza zerbitzua testuak zuzentzeko eta euskaraz sortu beharreko testuak osatzen laguntzeko, eta zein testu mota itzul daitezkeen tresna honen bidez (albisteak, oharrak, prentsa-oharrak, e-mailak, gutunak, memoriak, txostenak, egitarauak...) Horrela, identifikatu ziren 20 erabiltzaile edo sail, eta haien eskura jarri zen Elhuyarren Modela itzultzaile automatikoa.

Azaroaren erdialdera Elhuyarrek itzultzailearen bertsioa hobetu zuen eta it itzultzailea erabiltzera pasatu ginen.

Urrian 8.551 hitz itzuli ziren; azaroan 14.880; abenduan 2.556.

Abenduko jaitzieraren arrazoia izan daiteke azaroaren erdialdean gertatutako aldaketa (Interneten tokiz aldatu zen eta asko ez ziren horretaz jabetu) eta itzultzaile neuronalaren erabilgarri egotea (zabalkunde handia izan zuen komunikabideetan).

**IZENBURUA: ADMINISTRAZIOEN ARTEKO HARREMANETAN
EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEKO PROIEKTUA**

DESKRIBAPENA: HPSk administrazioen arteko harremanetan eskararen erabilera areagotzeko proiektuarekin jarraituko du (aurretik Berdintasun arloekin egindako moduan), eta oraingoan 2. faseari ekin dio: kultura arloko kultura sustapen, kultura ondare eta liburutako langileen arteko harremanetan erabilera sustatzeko. Lehenengo lana abiapuntuko diagnosia egitea izango da.



EPEA: 2019

GASTUA:

BALORAZIOA:

Diagnostikoa egiteko arlo horietako 10 langileren gaineko datuak bidali genituen eta Siadeco enpresak diagnostikoa egin zuen.

Diagnostiko horren emaitza eta proiektua garatzeko metodologia jarri du HAKOBak udalen esku azaroan. 2020an erabakiko da zer urrats jarraitu.

IZENBURUA: JENDAURREKO EKITALDIAK

DESKRIBAPENA: Jendaurreko ekitaldietarako protokoloa definitzea



EPEA: 2019

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

2018ko Euskaraldirako prestatu zen protokolotik abiatuta, Komunikazio lantaldeak [Komunikaziorako protokoloa](#) egin du, non beste kontu batzuekin batera dagoen Hizkuntzaren erabilerari dagokion atala baitago. Alkatetzaren proposamen gisa zabaldu zen langile eta ordezkari politikoen artean.

IZENBURUA: ZORIONAK DIPTIKOA

DESKRIBAPENA: Eibarren umeak erregistratzen dituzten familiei Pegoran “Zorionak” diptikoa banatzen zaie. Bertan eredu linguistiko desberdineko gurasoei aholkuak ematen zaizkie umeekin eduki behar duten jarrerari buruzkoak.



EPEA: 2019 urtea


GASTUA: 2016ko aurrekontukoa 907,50€ (3.000 ale)

BALORAZIOA:

2019 urtean 194 ume jaio dira.

IZENBURUA: EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Eibarko ikastetxeetan San Andres inguruan Euskarazko produktuen katalogoa banatzen du. Katalogo hau Euskal Herri osorako egiten da eta Eibarko udalak ale batzuk erosten ditu.



EPEA: 2019ko azaroa


GASTUA: 2.527,80 €

BALORAZIOA: 2.800 katalogo banatu dira Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan eta 1.700 liburu bereizgarri DBHko ikastetxeen bitartez.

IZENBURUA: HAZI HEZI ALDIZKARIAREN BANAKETA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak 2 urteko umeen geletako gurasoei Hazi Hezi aldizkariaren urtebeteko harpidetza oparitan jasotzeko aukera ematen die. Interesatuek izena eman behar dute.

Horretaz gain ume jaioberria erregistratzera doazen familiek Hazi Hezi 0 alea doan jasotzen dute.



EPEA: 2019 urtea

GASTUA: 705 € harpidetza eta Pegoran 0 alea banatzea doan izan da.

BALORAZIOA: 48 gurasok eman dute izena urtebeterako harpidetza doan jasotzeko. laz baino 5 guraso gehiagok:


- 2 Aldatzekoak
- 12 San Andresekoak
- 12 La Sallekoak
- 20 Mogeleskoak
- 2 Arrateko Andra Mari

eta Pegoran 194 familiari banatu zaie 0 alea

IZENBURUA: GURASO TAILERRAK BULARRETIK MINTZORA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak ikastetxeekin eta familiekin lankidetzan Galtzagorri elkartearen *BULARRETIK MINTZORA* egitasmoa jarri du martxan. Egitasmo horretan Euskara arloa, udal liburutegia, ikastetxeak eta familiak dira partaide. Egitasmoaren barruan gurasoei zuzendutako tailerrak eta hitzaldiak eskaini dira, euskaraz eta gaztelaniaz.

Helburua haur literaturaren garrantziaz jabetzea eta irakurketa ohiturak etxean sustatzeko familientzako formazioa ematea da.



Gurasoentzako Tailerra: **Haurrak, poesia eta eskola**

Haur poesia ezagutzeko modurik eraginkorrena frogatuko dugu: sortu, antzeztu, kontatu, esan. Erabat praktikoa izango da. Bularretik Mintzora, irakurtzeko zaletasuna sustatzen duen egitasmoaren barruan eskaintzen da.



Irakaslea:
**Yolanda
Arrieta**

Otsailak 12 eta
19, astearteak

18:00-20:00

PORTALEA

1 solairuko
batzartokia

DOAN

Izena emateko azken
eguna otsailaren 6a.

- ✓ Ikastetxean
- ✓ Udal liburutegiko
mostradorean.
- ✓ Telefonoz:
945 708111 (+200)
- ✓ euskara@eibar.eus

DATAK: Otsailak 12 eta 19, 18:00-20:00 PORTALEko 1 batzartokian

Haurrak poesia eta eskola: Yolanda Arrieta

GASTUA: 0 €


BALORAZIOA: Ez da talderik osatu eta bertan behera utzi dugu.

IZENBURUA: KALIAN JOLASIAN ETA MUSIKA AUZOZ AUZO

DESKRIBAPENA: Kaleko euskarazko jolasak egiten dira Euskal Jaien barruan, Udalak Astixa Animazio Zerbitzuaren bidez ostiral arratsaldean 4-8 urte bitarteko umeentzako.

Egitasmo hau garatzeko Udalak, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolak, Klub Deportiboak eta Eibarko ikastetxe guztiek hartu dute parte, eta jolasen koordinazioaz ASTIXA arduratu da.

Aurten ere Musika auzoz auzo egitasmoarekin bat egin du, eta jolasen ondoren musika eta dantza egon da.



EGUNA: 2019ko maiatzaren 10ean 17:00-19:00

GASTUA: Afariketan egitasmo hitzarmenean sartuta dago

BALORAZIOA: Dagoeneko euskal Jaiaren egitarauan finkatuta dagoen ekitaldia da. Familiek badakite eta gustura hartzen dute. Lehen aldiz Toribio Etxeberria kalean egin da bizikleta plaza ezin delako erabili. Kokapen berria ez da oso egokia. 2020ra begira aztertu egin beharko da kokapenaren gaia.


IZENBURUA: INFOGRAFIA: FAMILIA HIZKUNTZA UME ELEANITZAK

DESKRIBAPENA: *Ume eleanitzen gurasoentzako eskuliburua* infografia bilakatua. Paperean dagoen informazio garrantzitsua infografia bidez (animazio bideoa) ematea da helburua.

Infografia hori ikastetxeek gurasoekin egiten dituzten bilera orokorretan erabili ahal izango dute, udalaren web gunean eta ikastetxeen web eta blogetan egon daiteke ikusgai.

Watsap bidez banatzeko bertsio arin bat izatea komeniko litzaiguke.

<https://www.eibar.eus/eu/bideoak/euskaratik-eleanitzasunera-infografia>



EPEAK: 2019 IRAILA-URRIA

GASTUA: 7.151,71 €

BALORAZIOA: Momentuz esan dezakegu ikastetxeek gustura hartu dutela multimedia materiala. Bideo honen bidez gurasoek 5'an funtsezkoa den informazioa jaso ahal dute. Liburuxkaren formatoak lan handiagoa eskatzen zien irakasleei eta baita familiei ere. Watsap bidez erraz banatzeko bertsioa ere egin eta zabaldu da.

IZENBURUA: HH eta LHko IKASTETXEEKIN LANKIDETZA BILERAK

DESKRIBAPENA: Eibarko Udaleko Euskara sailaren eta HH eta LHko ikastetxeen artean egiten diren bilerak, lankidetzan hainbat egitasmo proposatzeko, sustatzeko, ebaluatzeko. Guztira 7 ikastetxe daude eta denak dira mahaiko kide.



DATAK:

2019/01/29

2019/04/02

2019/05/07

2019/09/03

ASISTENTZIA

6 ikastetxe

6 ikastetxe

6 ikastetxe

4 ikastetxe

GASTUA: 0 €

BALORAZIOA: Ohikoa diren bilerak egin dira. Asistentzia %78koa izan da.

IZENBURUA: DBH, Batxilergoa eta LHko IKASTETXEEKIN LANKIDETZA BILERAK

DESKRIBAPENA: Eibarko Udaleko Euskara sailaren eta DBH, Batxilergoa eta LHko ikastetxeen artean egiten diren bilerak, lankidetzan hainbat egitasmo proposatzeko, sustatzeko, ebaluatzeko. Guztira 3 ikastetxe daude, eta denak dira mahaiko kide. Ikastetxe publiko bakarra dago 3 egoitzatan banatua, eta 2 kontzertatu.



DATAK:

2019/01/30

2019/05/22

2019/09/11

ASISTENTZIA

2 ikastetxe

3 ikastetxe

3 ikastetxe

GASTUA: 0 €

BALORAZIOA: Ohiko 3 bilerak egin dira. Asistentzia oso ona izan da.

IZENBURUA: LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEEKIN
LANKIDETZA BILERAK

DESKRIBAPENA: 2018an hasi da Eibarko Udala Lanbide Heziketako ikastetxeekin (Armeria Eskola eta UNI) eta ...eta kitto! Euskara elkartearekin lankide delarik bilerak egiten elkarrekin Lanbide heziketan euskararen erabilera sustatzeko. Lankide mahaia Lanbide Heziketako ikastetxeen eskaerari erantzuteko antolatu da.



DATAK:

2019/06/19

ASISTENTZIA

Denok

GASTUA: 0 €

BALORAZIOA: Baliagarria izan da Lanbide Heziketako zentroekin bilera bereiztuak egitea. Euren asistentzia eta inplikazioa oso ona izan da. Aukera izan dugu zentro horietarako ekintza espezifikoak diseinatzeko. Armeria Eskolarako A eredu ikasleentzako motibazio saioak egin dira 2. urtez. Horretaz gain A eredu moduluetan euskara saioak sartu dira proiektuan integratuak. 100 orduko ikastaroa izan da eta esperientzia berria.

UNIn ez da ez motibazio saiorik egin ezta euskara klase berezirik eman ere.


IZENBURUA: BULARRETIK MINTZORA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak ikastetxeekin eta familiekin lankidetzan *BULARRETIK MINTZORA* egitasmoa jarri du martxan. Egitasmo horretan Euskara arloa, udal liburutegia, ikastetxeak eta familiak izango dira partaide. Euskara arlotik egitasmoaren zabalkundea egingo da ikastetxeetan eta gurasoen formazio kostua ordainduko da.



Probatu duten herrietan:

Gurasoek liburuarekin josteko ohitura hartzen dute, maileguz gehiago erabiltzen dute, haurrek arretari esker dute gaitasuna lortzen dute eta haurrek eta gurasoaren arteko komunikazioa afektiboa areagotzen da



Bularretik Mintzora

2007. urteaz geroztik, Euskaral Herriko Haurren Eskola, ikastetxeak

21 herri
473 irakasle
51 ikastetxe
7.500 haurren baimen
gehiago
175 liburuzin
2.883 gurasoen
galdetuzkanak
1.500 haurren baimen

www.bularretikmintzora.org
bularretikmintzora@eibarko.eus
bularretikmintzora@eibarko.eus



Euskaral Herriko Liburutegia, 64 irakasle ikastetxeak
gurasoekin batera

Liburua,
ikastetxea,
lankidetzak,
jardunaldiak,
aholkulari, ereduak,
klubak, errezeta
literarioak, kartelak,
mozailak, maletak,
galdetuzkanak,
ebaluzioa,
buletinak...



EPEA: 2018-2019 ikasturtea.

GASTUA: 1.040,00 €

BALORAZIOA: HH eta LHko ikastetxe guztiek hartu dute parte Urkizuk izan ezik. Aurrerago gaia aztertzeak geratu dira. San Andres ikastetxea ikasturte bat lehenago abiatu zen bere kontura. Momentu honetan 6 ikastetxe daude egitasmoaren barruan. 12 formazio saio jaso dituzte ikasturtean programaren barruan zeuden irakasleek. Dagoeneko ikastetxeek jaso beharreko formazio osoa jaso dute. Hemendik aurrera egitasmoak aurrera egingo du Juan San Martin udal liburutegiarekin eta Euskara Zerbitzuarekin lankidetzan.

IZENBURUA: GU ERE BERTSOTAN 2018-2019

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Gipuzkoako Bertsozale Elkarteen bidez ikastetxe guztietan eskaintzen duen bertsozaritza eta ahozotasuna lantzeko egitasmoa. Udalak eta ikastetxeek finantzatua. Ikastetxe gehienetan LH5 eta 6 mailatan burutzen da. Egitasmoak ikasturte osoa hartzen du, urrian hasi eta maiatzaren amaieran bukatzen da. Bertsozaritza lantzeko saioa astero izaten dute eskola orduetan, aste batean bertsozale elkarteko irakaslea joaten da gelara eta hurrengo astean tutorearekin lantzen dute.



EPEA: 2018-2019 ikasturtea

GASTUA: 11.720€

BALORAZIOA: Eibarko Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztiek hartu dute parte. Egitasmoa 18 ikastaldetan burutu da. 360 ume inguruk landu dute bertsozaritza. Gipuzkoako bertsozale elkarteak deituta martxoaren 14an jarraipen batzordea egin da. Bertan 5 ikastetxetako ordezkariak, udaleko euskara teknikaria eta bertsozale elkarteko ordezkaria bildu dira. Ikastetxeen balorazioa oso ona da eta Euskara sailarena ere bai. Umeek bertsozaritzaren bitartez umore eta jolas giroan bertsoaren bitartez euskara eta ahozotasuna lantzen dute. Bertsozale elkarteko irakasleak oso profesionalak dira eta umeekin duten harremana oso egokia da. Ikusi [AKTA](#) eta [MEMORIA](#)

IZENBURUA: UMEEN BERTSO JAIALDIAK

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak ikastetxeekin batera Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen bitartez “Gu ere bertsoan” proiektuaren ikasturte amaierako ekitaldia izaten da haurren bertso jaialdia.



DATAK:

Maiatzak 20, astelehena: Amaña, Iturburu eta La Salleko LHko 5. Mailako ikasleak

Maiatzak 21, asteartea: Amaña, Iturburu eta La Salleko LHko 6. Mailako ikasleak

Maiatzak 23, osteguna: Arrateko Andra Mari, San Andres, Urkizu eta Aldatzeko ikasleak

GASTUA: Coliseoaren erabilera

BALORAZIOA: Oso positiboki baloratzen da emanaldi hauek egitea. Umeen ilusioa eta motibazioa oso garrantzitsuak dira saio horietan. Familiek ere umeei ikasturtean landutakoaren emaitzaz gozatzeko aukera izaten dute eta Coliseoa bete egiten da.

IZENBURUA: EUSKARAREN BALOIA

DESKRIBAPENA: SD Eibarren egitasmoa da udalarekin eta ikastetxeekin lankidetzan burutuko dena. Helburua Lehen Hezkuntza osoan euskararen erabilera sustatzea baloiarekin edota futbolean diharduten bitartean. Egitasmoa eskola ordutegian burutu da. Oinarria Euskararen baloi zaharra ipuina da. SD Eibarko jokalaria eskolaz eskola joan dira baloi zaharrarekin eta umekin egon dira. Ipuinaren arabera baloi berezi horrekin jolasean euskaraz egin behar da.



EPEA: 2019ko urria-azaroa

GASTUA: SD Eibarrek finantziatua

BALORAZIOA: Eibarko Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztiek hartu dute parte. Umek ilusio handiz bizi izan dute Eibarko jokalarien bisita.

IZENBURUA: EUSKARA ZINE ARETOETARA 2018-2019

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak ikastetxeei euskarazko zine eskaintza egiten die eskola orduetan. Eskaintza hori TINKO euskara elkartearen bitartez. Udala eta ikastetxeen artean finantzatzen da. Filmak Coliseoan edo Portalean ematen dira 14:45-16:30 bitartean.



EPEA: 2018-2019 ikasturtea

GASTUA: 2.085,60 €

BALORAZIOA: TINKOk 8 filma eman ditu. Filme guztiak Coliseoan eman dira soinua hobea delako, eta ikastetxeek eta TINKOk ere horrela eskatu duelako. 1.896 ikusle izan dira.

Ikastetxeka honako hau izan da filmen eskaera:

IKASTETXEAK LH:

- San Andres 4 filma
- Aldatze 4 filma
- Amaña 3 filma
- Urkizu 3 filma
- La Salle Isasi 4 filma
- Arrateko Andra Mari 1 filma

IKASTETXEAK DBH

- IEibar BHI 2 filma
- La Salle Azitain 2 filma
- UNI Eibar filma 1

IZENBURUA: TRAMANKULUAK IKASGELAN

DESKRIBAPENA: Jose Ramon Soroizek eskaintzen duen emanaldia da. Eibarko Udalak LH 5eko ikasleentzako motibazio-saioak antolatzen ditu. Eskola orduetan izaten da. 5 saio egin dira, lau Portalean eta bestea Iturburun. Udalak finantzatzen du. Helburua da euskaraz gozatzea eta idazteko eta irakurtzeko zaletasuna sustatzea.



EPEA:

Urtarrilaren 22an

11:00 Iturburu

Urtarrilaren 23an:

10:00 San Andres

11:15 Urkizu

Urtarrilaren 24an:

10:00 Aldatze eta Amaña

11:15 La Salle eta Arrateko Andra Mari

GASTUA: 1.760 €

BALORAZIOA: Portalean egin den emanaldi bakoitzean 50 ume inguru egon dira eta Iturburun 75. Beraz guztira 275 umek hartu dute parte emanaldian eta oso arrakastatsua izan da aurten ere.

Euskararen Sustapenerako Ekintza Plana

IZENBURUA: ONGI ETORRI EUSKARARA

DESKRIBAPENA: Eibarrera bizitzera etorritako atzerritarren seme-alabei euskarazko errefortzu saioak ematen zaizkie. Udalak finantzatzen du. Ordu eta laurdeneko bi saio izaten dira asteen, Indianokua gaztelekuan.

Ikasturte honetan ere ikastetxean bertan taldeak osatzea bultzatu da. Eibar BHIIn hauspoa egitasmoaren barruan eskini da.

Eibar BHI Isasiko 1go taldea: Astelehen-asteazken 2. taldea: Astearte-osteguna. Indianokua Gaztelekuan bi taldek astelehen-asteazken

2019ko urriaren 21ean hasi dira eta abenduaren 19a bitartean garatuko dira.

Guztira 38 ikaslek eman dute izena eta 4 taldetan antolatuta jardungo dute.

3 talde Eibar BHI Isasi ikastetxean eta talde 1 Gaztelekuan (Aldatzeko ikasleak).

2019/2020 ikasturtea. Orduetgia:

Eibar BHI Isasi :15:15etik 16:15era.

Indianokua Gaztelekuan: 16:30-17:42 eta 17:30-18:45



EPEA: Egitasmo honek 2 ikasturte desberdinetako bi trimestre desb erdin harrapatzen ditu. Horregatik aldatzen da taldekopurua eta kasu batzuetan egutegia eta orduetgia ere bai.

Bi zatitan garatu da: urtarriletik maiatzaren amaierara eta azarotik abendura.

2018/2019 ikasturtea:

2019ko urtarrilaren 7tik apirilaren 17ra bitartean garatu da.

Euskararen Sustapenerako Ekintza Plana

GASTUA: 12.414 €

BALORAZIOA:

2018/2019 ikasturtea: Urtarriletik maiatza bitartean 4 taldetan jardun dute: 3 Eibar BHI Isasin eta 1 gaztelekuan.

2019/2020 ikasturtean ere 4 talde jarri dira martxan banaketa berarekin.

Hauspoa programa: 35 ikasle ibili dira 3 taldetan banatuta. Bi talde maila ertainekoak dira eta bat oinarrizko mailakoa. Horietatik 20k asistentzia eta jarrera ona izan dute. Guztiak DBHko 1 eta 2 mailako ikasleak dira.

Gaztelekua: 9 ikasleko taldea osatu da. Hasiera batean euskara maila kontuan hartuta bi azpitalde egitea pentsatu zen, baina euren jarrera ikusita erabaki da denak elkarrekin egotea talde bakarrean. Ikasle guztiak Aldatze ikastetxeko DBH 1 eta 2 mailakoak dira.

2019/2020 ikasturtean ere 4 talde jarri dira martxan banaketa berarekin.

IZENBURUA: ANTZEZLANETARAKO SARRERAK OPARITAN

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketako ikastetxeetako ikasleei euskarazko emanaldietako sarrerak oparitzen dizkie.



GASTUA: 0 €.

BALORAZIOA: Hirugarren urtea izan da ekimen hau martxan izan dela. Eta iaz baino arrakasta handiagoa izan du. 33 ikaslek hartu dituzte sarrerak 3 emanalditara joateko. Ikasle guztiak La Sallekoak izan dira.

IZENBURUA: TXIKITASUNEAN HAUNDI MOTIBAZIO SAIOAK DBH1

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak DBH 1eko Ikastalde guztiei motibazio saioak eskaintzen dizkie. Eskolan bertan eskola orduetan izaten da, Udalak finantzatzen du, eta Eta Kitto euskara elkarteak eskaintzen ditu. Helburua euskaraz egitera animatzea da. Tailerra ordu eta erdiko bi saioak osatzen dute.



EPEA: Urritik abendura bitartean egin dira saioak.

GASTUA: 2.184,50 €

BALORAZIOA:

325 ikaslek jaso dituzte motibazio saio hauek. Eibarko DBH1 maila duten ikastetxe guztietako ikasleek hartu dute parte. Guztira 13 taldetan eman dira saioak. Orohar ikasleek saioari buruz egin duten balorazioa ona da. Balorazio guztiak taldeka [HEMEN](#) daude.

IZENBURUA: ZERGATIK EZ MOTIBAZIO SAIOAK BATXILERGOA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Batxi 1eko ikasleei motibazio saioak eskaintzen dizkie. Eskola orduetatik kanpo izaten da, Portalean. Udalak finantzatzen du. Helburua da euskararen erabilera sozialaren inguruan hausnartzea eta partaideen hizkuntzaren aldeko jarrera indartzea. Saio hauek Elgoibarko Izarra euskara elkartekoek ematen dituzte.




EPEA: 2019ko martxoaren 22an eta 29an

GASTUA: 453,75 €

BALORAZIOA: Aldatzeko ikasleek hartu dute parte. Guztira 30 ikaslek hartu dute parte; 20 neska eta 10 mutil. Jarrera ona izan dute eta parte hartu dute eta saioen helburua bete dela esan daiteke. Gaztetxoek saioei buruz egindako balorazioa 3.62koa izan da 5etik.. [BALORAZIO OSOA](#).

IZENBURUA: BAGABIGAHIGA EMANALDIA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak antolatzen du DBH 4ko ikasleei musika emanaldia Eñaut Elorrieta eta Mikel Markezen eskutik. Eskola orduetan izaten da, Coliseoan. Udalak finantzatzen du. Helburua da euskal musika ezagutzea, zaletasuna sortzea eta euskal erreferenteak sortzea.



EPEA: 2019ko maiatzaren 6a, 11:00

GASTUA: 484,00 €

BALORAZIOA: DBHko ikastetxe guztiek hartu zuten parte. Guztira 268 ikaslek hartu dute parte. Balorazioa oso positiboa izan da, nahiz eta ikasle gutxi batzuen jarrera ez den egokiena izan, batez ere emanaldiaren hasieran.

IZENBURUA: MOTIBAZIO SAIOAK LANBIDE HEZIKETA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Lanbide Heziketako A ereduko ikastaldeei motibazio saioak eskaintzen dizkie. Eskolan bertan eskola orduetan izaten da, Udalak finantzatzen du. Helburua da euskara ikastera animatzea.



Hitzaldi soziolingüistikoak
Txikititasunean HAUNDI?

...eta kitto! Euskara Elkarteak ERABEERA sustatzeko asmoz bi motibazio/sensibilizazio hitzaldi eskaintzen dizkizue. Euskara XX. Mendean arte bizirik irauten jarraitu du, gure esku dago XXI. Mendean arte ere bizirik hartzea. Zer egin ordea horiaz ohartzeko eta erabilera sustatzeko? XXI. Mendean gure esku hitzaldietan horixe da hain zuzen ere bilatzen duguna, gaitzeskoak edota helduek sensibiltzatu eta jarrera aktiboak sortzea. Bi formatu eskaintzen ditugu, bata hitzaldi formatuan eta bestea talde formatuan.

Euskaldun izan edo ez izan, helduek euskararekiko erakusten dugun jarrera eragin zuzena dugu: gure seme/alaba, ikasle eta erakundearen umen jokabidean. Jarrerak aldatzea posible al da? Jarrerak aldatuz gero gure jokabidea aldatuko genduke?

Umek dituztenentzat edota umekin lan egiten dutenentzat pentsatuta dago "Euskararekiko JARRERAK eta MOTIBAZIOAK" hitzaldia eta euskaraz zein gaztekeraz eskaintzen dugu.

Haztegiarenarako: Aizora Labado Aizora (943 20 09 18 / normalizazioa@etakitto.com)



XXII. mendea GURE ESKU

- Zenbat hizkuntza daude munduan?
- Zergatik desagertzen dira hizkuntzak?

Hitzaldia
12:00-13:00 orduak
Irakurleak: 75 minutu
30 lagun gelarekin jarri

Talerra
Irakurleak: 80 minutu
Irakurleak: 75 minutu
25 lagun gelarekin jarri

Euskararekiko JARRERA eta MOTIBAZIOAK



- Jarrerak erantzun ikasia dute.
- Posible al da jarrerak aldatzea?

Hitzaldia
Orairekin: euskararekiko jarrera erakundearen umen jokabidearen inguruan
Irakurleak: 75 minutu

EPEA: 2019ko iraila

GASTUA: 1.555,09 €

BALORAZIOA: Lanbide Heziketako Armeria Eskolako 8 taldek jaso dute, lehen mailan A ereduan dauden talde guztiak dira. Balorazioa orohar ona izan da. Eta interesa adierazi duten ikasleek euskaltegiara jo dute euskara ikastera.

Lortu da ikastetxearen eskola orduen barruan ere proiektuetan integratuak euskara modu berezian lantzea, eta ikasturte honetan Eibarko Udak euskaltegiko irakasleek batek dihardu lan horretan.

IZENBURUA: BARNETEGIA DBH 2

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak DBHko Eibar BHI ikastetxearekin lankidetzan bertako DBH2ko ikasleentzako hizkuntza barnetegia antolatu du. Eskola mapa berriaren arabera antolatu dira ikastetxe publikoak, eta horrek eragindako egoera berrietara hobeto egokitzeko helburua du barnetegiak (talde izaera, zentro desberdinetatik etorritako ikasleen arteko bizikidetzak aberatsagoa izatea. Baina bereziki helburua hizkuntza ohituretan eragitea da, jabetasuna eta ahalduzko prozesu baten bidez.



EPEA: 2019ko urtarrilean

GASTUA: 5.984 €

BALORAZIOA: DBH2ko bi talde egon dira eta ikastetxeak eta barnetegiko begiraleek egindako balorazioa ona izan da. Baina euskararen erabilerari dagokionean 3 puntuko emaitza (onargarria) jarri zaie 5etik.

IZENBURUA: GURASOAK ERE ESKOLARA EGITASMOA 2019-2020

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak, udal euskaltegiak, AEK-k eta HH eta LHko ikastetxeek lankidetzan 60 orduko euskara ikastaroak eskaini dituzte ikastetxeetan. Eskaintza ikastetxe bakoitzak egin du bere gurasoen perfila kontuan hartuta egokien iruditu zaien moduan. Hauek ere matrikularen %50 ordaindu dute ikastaroa. Astean 4 eskola ordu jasoko dituzte eta helburua euren seme-alaben euskalduntze prozesuan eurek ere euskara ikasita laguntzea da.



EPEA: 2019ko urritik 2020ko maiatzera

GASTUA: Deskontuen zenbatekoa kanpaina berezien fitxan dago sartuta.

BALORAZIOA:


Kanpaina hau egiten den laugarren ikasturtea da eta 3 gurasok eman dute izena eta 3 talde osatu dira: Amañan talde 1, Urkizun talde 1 eta Portalean talde 1.

Ikasturte honetan talde bakoitzean ikastetxe desberdinetako gurasoak egon dira, eta taldea aukeratzeko erabili den irizpidea, eguna, ordutegia, maila eta gertutasuna izan dira.

Ikastaro hauen bitartez gurasoek euskara ikasteaz gain, euren seme-alaben aurrean hizkuntzari dagokionean izan beharreko jarrera egokiak ere landu dira, baita gurasoentzat oso praktikoak izan daitezkeen beste gai batzuk ere, esaterako nola lagundu etxeko lanekin.

IZENBURUA: EUSKALTEGIEN LEHIAKETA: MIKROIPUIN LEHIAKETA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak euskaltegi biek in lankidetzan BERBA lehiaketa antolatzen du: politena, itsusia, eibartarrena... hautatzeko lehiaketa izaten da. Sari bat epaimahaiak emandakoa eta bestea webean boto gehien jaso dituenarentzat izaten da. Lehiaketa irekia izaten da eta edonork har dezake parte.





NANOIPUIN LEHIAKETA

Guztira 50 nanoipuin inguru jaso dira, eta gustukoena aukeratzeko ordua heldu da.

Ikusi www.eibarko-euskara.eus orrian aurkeztu diren ipuintxoak, eta eman botoa gehien gustatu zaizunari **martxoaren 24a baino lehen**.

Bi sari emango dira: bata epaimahaiarena eta bestea boto gehien jaso dituenarena.

Antolatzaileak
eibar@aek.eus euskaltegia@eibar.eus euskara@eibar.eus



EPEA: 2019ko otsaila-martxo

GASTUA: Coliseorako eta Armagintza museorako 4 sarrera.

BALORAZIOA: Lehiaketan 43 nanoipuin aurkeztu dira eta 513 boto jaso dira guztira.
Irabazleak: **Txotx**

2018ko Sagardo Eguna. Udaletxe ondoan ezagutu zintudan. "Txotx!" Begiradak, txantxak, musuak. "Bixar arte!" Zure edalontzia oraindik etxean daukat. Ezpainetako gorriaren marka marroitzen hasi da.



Ekaitzak argiak itzali ditu

Ekaitzak argiak itzali ditu. Bakardade ilunean hiria zeharkatzen ari naiz beldur barik, ilargiaren eraginez nire itzala nirekin doa eta. Arnasa moztu zait gaur ilberri dagoela konturatu naizenean.

Euskararen Sustapenerako Ekintza Plana

IZENBURUA: FILMAZPIT

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak euskaltegiekin lankidetzan Filmazpit egitasmoa burutzen du. Filmazpit egitasmoak euskaraz azpitolatutako filmak emateko aukera eskaintzen du. Filmak doan ematen dira Portaleko Areto Nagusian euskaltegiaren ordutegian eta iluntzean. Sarrera irekia da.



DATAK: 2019/02/20 ARBEIT FÜR ALLE

2019/06/03 TOMBOOY

2019/11/11 ANIMADEBA

GASTUA: Areto Nagusiaren erabilera.

BALORAZIOA: 3filma eman dira 2019an eta guztira 200 ikusle inguru izan dira.

IZENBURUA: SENTSIBILIZAZIO SAIOAK AISIALDI ETA KIROLETAKO BEGIRALEENTZAT

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Euskara Sailaren bitartez ikasturte hasieran sentsibilizazio saio desberdinak eskaintzen dizkie aisialdiko begiraleei, Multikiroletako begiraleei, Musika Eskolako irakasleei eta Kirol Patronatuko langileei.



DATAK: 2019/11/08

GASTUA: 500 €

BALORAZIOA: Guztira kiroletako 5 hezitzailek eta aisialdiko 10 hezitzailek egin dute tailerra. 1. Saioa bakarra jaso dute iazkoaren jarraipena izan delako eta begirale guztiak iaz ibilitakoak zirelako.

Koordinatzaileekin on-line egingo da planaren martxaren jarraipena.

IZENBURUA: MULTIKIROLAK 2018 2019

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak ikastetxeekin eta Kirol Patronatoarekin lankidetzan Multikirolak egitasmoa bideratzen du. Euskara zerbitzutik egitasmoa burutzeko kirol monitoreen enpresa baten kontratazioan parte hartzen da, kirol jarduerak euskaraz izan daitezzen eta begiraleek euskararen erabileraren neurketa egin eta erabilera sustatu dezaten umeen artean eta baita partidetan kirol klubetatik datozen epaile eta adituen artean.



EPEA: 2018-2019 ikasturtea

GASTUA: 3.993 €

BALORAZIOA: Ikastetxe guztietako umeei hartu dute parte. Umeen % 51 hartzen du parte egitasmoan. 273 benjaminek hartu dute parte, 93 neska. 230 alebinak izan dira eta horietatik 83 neskak.

Hizkuntzaren erabilerari dagokionez, talde harreman hizkuntza euskara dute umeen % 59k eta monitorearekin euskaraz egiten dutenak % 79 izan dira. Ikastetxeen arabera alde handiak daude, bai partidetzan, bai euskararen erabileran.

[Ikusi taula.](#)

Horretaz gain Eskola kiroletako partidetan klubek ere parte hartzen dute eta euskararen erabileraren neurketa egiten da. Ikusi hemen [TXOSTEN OSOA](#)

Euskararen Sustapenerako Ekintza Plana

IZENBURUA: KORRIKA

DESKRIBAPENA: Euskara Batzordetik Korrika Eibartik pasatzen denean Korrika egiteko kilometroa erosten da.



DATAK: 2019/04/13

GASTUA: 726 €

BALORAZIOA: Euskara Batzordeko ordezkari politikoek lekukoa eraman zuten Barrena kalean

IZENBURUA: TRANSMISIO MINTEGIA

DESKRIBAPENA: ...Eta Kitto! Euskara elkarteak antolatzen du udalaren babesarekin. Goiz osoko mintegia euskararen transmisioari buruzko hizlariekin eta mahai inguruarekin Euskal Herri osoko euskara teknikari, irakasle, aisialdiko begiraleei zuzendua.



DATAK: 2019ko martxoaren 12an, asteartea, 8:45-14:30

GASTUA: 1.000 €

BALORAZIOA: Goiz osoko egitarauan 6 hizlari egon dira eta amaieran mahaingurua egin da. Guztira 60 lagun inguru bildu dira. Gehienak inguruko ikastetxeetako irakasleak eta euskara eta gazteria teknikariak.

IZENBURUA: BERTSO FINAL LAURDENAK

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Gipuzkoako Bertsozale Elkartek proposatuta antolatzen du Gipuzkoako bertso txapelketako final laurdena Coliseoan.

Final-laurdenak

Eibar
Urriak 26
17:00
Coliseo Antzokia

Jon Mala Sorla
Gorka Matz Alustiza
Jokin Uranga Isuskiza
Unai Muñoa Amundarain
Felix Zubia Olaskoaga
Mikel Tapia Aierbe

Gipuzkoako
Bertsolari Txapelketa
2019

Antolalzailea
Laguntzailea

www.bertsozale.eus
www.bertsozarreak.eus

EIBARKO UDALA

Aurkezlea: Itziar Etxezarreta Arakistain

DATAK: 2019ko urriaren 26an

GASTUA: 4.200 €

BALORAZIOA: Coliseoa bete egin zen, eta giro polita egon zen.

IZENBURUA: EIBARKO EUSKARA .EUS

DESKRIBAPENA: Euskara zerbitzuak KAM enpresaren bidez www.eibarko-euskara.eus web gunea kudeatzen du. Bertan Eibarko euskara hiztegia, argitalpenak eta Eibarko euskararen lotura duten egitasmoak daude jasota.

The screenshot shows the website's layout. At the top left is the logo 'EIBARKO UDALA' with 'Euskararen lotura' and 'Eibarko euskara' text. A navigation bar contains icons for 'Albisteak', 'Argitalpenak', 'Estekak', 'Hiztegia', and 'Twitter'. The main content area is divided into three columns. The left column has three sections: 'AURKIBIDEA' with a list of menu items, 'GOBERNUA' with a list of administrative items, and 'JUNKAL' with a list of links. The middle column features 'Hiztegia' with a search form, 'Ahotsak' with a video player, and 'Argitalpenak' with a book icon. The right column has 'Albisteak' with a bell icon, a 'Nanoipuin lehiaketa' section with text and a list of rules, an 'Apirilaren 25ean helduentzako ipuin musikatuak' section with text, and a date 'Eguna: apirilak 25'.

GASTUA: 759 €

BALORAZIOA: 2019an 38.720 bisita izan ditu eta 16.296 erabiltzaile. Momentu honetan gune hau gehien bat Eibarko Euskara Hiztegia on line mantentzeko da.



IZENBURUA: ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ 1.500 BAIETZ KANPAINA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Errenta aitortpena euskaraz egiteko publizitate kanpaina egingo du. Eibarren ez da %10era iristen euskaraz egiten diren errenta aitortpenak. Helburua %10,5era iristea da. Puntu bat eta erdi igo nahi da lehen aldiz egiten den kanpaina honekin. Kanpaina Eta Kitto astekarian, udalaren web eta sare sozialetan eta hiriko hedabideetan egingo da.

Eibarren 1.500 baietz!

ERRENTA AITORPENA, aukeran, EUSKARAZ!

- **Autolikidazio proposamena** onartzerakoan euskaraz egin nahi duzula esan.
- **Mekanizatua egiteko** ordua hartzerakoan euskaraz egin nahi duzula esan.
- **Internet bidez** egitean errenta programaren euskarazko bertsioa jaitsi Internetetik eta hobetsitako hizkuntza atalean euskara aukeratu.
- **Aholkularitzaren** bat aukeratzen baduzu, adierazi euskaraz egin nahi duzula.

EUSKARA BATZORDEA
www.eibar.eus

EPEA: 2019ko apirila eta maiatza

LANKIDEAK: GFA eta Eta Kitto

BALORAZIOA:

Aurreikusita zegoen bezala 4 astetan Eta Kitto astekarian jarri da iragarkia: martxoaren 29a, apirilaren 12an, maiatzaren 10ean eta 24an.

Horretaz gain Eta Kitto astekarian (2019/05/17) gaiari buruzko erreportaia ere egin da. Datorren urtera arte ez dugu jakingo geure buruari jarritako erronka lortu dugun.

IZENBURUA: JUAN SAN MARTIN BEKA 2019

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak UEUrekin lankidetzan ikerketa beka kaleratzen du bi urtean behin. Beka 9.000 €-koa da, eta lehiaketa bidez esleitzen da. 2019an gaia HISTORIA izan da.



EPEA: 2019

GASTUA: 9.000 €

BALORAZIOA: XIV. Juan San Martin bekaren irabazlea Josu Martinez izan da.

2019ko deialdian bekaren bitartez landuko den arloa Historia izango da. Deialdi honetara 11 proiektu aurkeztu dira eta epaimahaiak aho batez erabaki du proiekturik onena Josu Martinezek aurkeztutako "Irudiz eta euskaraz" izan dela.

Josu Martinezek aurkeztutako proiektuak, ***Irudiz eta euskaraz, gure hizkuntzaren zinema, gure zinemaren hizkuntza***, euskarazko zinemaren historia aztertuko du.

IZENBURUA: UEU DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak UEUn ikastaroak egiten dituzten eibartarrei eta baldintzak betetzen dituztenei matrikularen %50ari dagokion diru laguntza ematen diete.

Ikastaro hori indarrean dagoen ikasturtean egindakoa izan behar da.

Diru-laguntza jaso ahal izateko ikastaroa 2018/09/01 eta 2019/07/31 bitartean egindakoa izan behar da.

The screenshot shows the website interface for Eibarko Udala. The header includes the logo and navigation menu with options like 'Sarrera', 'Eibar', 'Udala', 'Tramiteak eta zerbitzuak', 'Albisteak', and 'Agenda'. The main content area is titled 'Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) eskaintzen dituen ikastaroetarako diru-laguntzak (2018)'. It features a sidebar with a menu of services, a main text block with a description and list of conditions, and a list of links for related documents.

PEGORA, Herritarren zerbitzurako bulegoa

Laguntza, tramiteak elektronikoki egiteko

Dokumentuak balidatzea

Kontratzailearen profila

Kontratuen Erregistroa

Kontratazio publikoaren araudia

Fakturazio elektronikoa

Nire ordainketa: erreziboak, isunak, likidazioak...

Udal tramiteak

Enplegua - Beharginen aukeraketa

Bekak, diru-laguntzak eta laguntzak

Diru-laguntza izendunak (hitzarmenak) dokumentu ereduak

Garapen bidean dauden herrialdeetako ekintzak finantzatzeko diru-laguntzak (2017)

Sarrera / Tramiteak eta zerbitzuak / Bekak, diru-laguntzak eta laguntzak / Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) eskaintzen dituen ikastaroetarako diru-laguntzak (2018)

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) eskaintzen dituen ikastaroetarako diru-laguntzak (2018)

Deskribapena: Udako Euskal Unibertsitateak 2017ko irailaren 1etik 2018ko uztailaren 31 bitartean eskaintako ikastaroak egiten dituztenei zuzendutako diru laguntzen eskaera egitea.

Hartzailea: 2017ko irailaren 1etik 2018ko uztailaren 31ra Udako Euskal Unibertsitateak eskaintako ikastaroetan matrikulatuta egon diren eta honako baldintza hauek betetzen dituztenek jaso ahal izango dituzte dirulaguntzak beti ere DLoren 13. artikuluko debekuren baten eraginpean ez badaude:

- **UEUK Eibartik kanpo ematen dituen Udako ikastaroak:**
 - Langabetua ala ikaslea izatea.
 - Eibarren erroldatuta egotea.
 - Gutxienez, %85eko asistentzia betetzea.
- **UEUK Markeskoa ikastetxe nagusian eskaintako ikastaroak:**
 - Eibarren erroldatuta egotea.
 - Gutxienez, %85eko asistentzia betetzea.

Eskaera egiteko epea: 2018ko maiatzaren 23tik irailaren 28ra (biak barne).

Diru-laguntzaren zenbatekoa: matrikula kostoaren %50a da.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

ESKAERA EGITEKO EPEA: 2019/09/28

GASTUA: 150,50 €

BALORAZIOA: 2 esкера egon dira, eta baldintza guztiak betetzen zituzenez, denak eman dira ontzat.

IZENBURUA: EUSKARA DIRU-LAGUNTZA IZENDUNAK

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Eibarren euskararen berreskurapenerako lanean diharduten elkarteekin diru-laguntza izendunak ditu. Diru-laguntza bi zatitan ordaintzen da, %60 hitzarmena sinatzen denean eta % 40 zuriketa aurkeztu eta ontzat eman ondoren.

[Eibarko AEK](#) 24.900 €

Eibarren euskararen irakaskuntzan aritzeko AEK-k garatuko dituen jarduerak finantzatzea. Helduen euskalduntze-alfabetatze ikastaroen matrikula prezioak merkatzea.



[Eta Kitto Astekaria](#) 60.041 €

Eta kitto astekaria argitaratzea. Eta kitto astekaria argitaratzen laguntzea. Euskararen sustapena. Euskaraz irakurtzea sustatzea Eibarko euskaldunak euskaraz irakurtzen ohitzea eta euskara gutxi edo ia ezer ez dakitenak ere euskarara gerturatzea.

[Eta Kitto Berbetan](#) 50.908 €-

Berbetan egitasmoa burutzea

Euskaldun berrien eta euskaldun zaharren artean harremanak sustatzea eta euskaldun berriei euskaraz praktikatzeko aukera ematea. Euskaldun berriek euskaltegian ikasitako euskara kalean, familian, merkataritzan eta ostalaritzan erabiltzea.

[Eta kitto Txikitto](#) 13.500 €

Txikitto aldizkaria argitaratzen laguntzea. Euskararen sustapena umeen artean. Euskarazko irakurketa sustatzea. Lehen Hezkuntzako umeen artean euskaraz irakurtzeko zaletasuna handitzea eta gurasoek eta umeek euskarazko irakurketa konpartitzea



[Eta Kitto Tailerrak eta hitzaldiak](#) 5.000 €

Tailerrak eta hitzaldiak antolatzea. Eta Kitto euskara elkarteak antolatuko dituen tailer eta hitzaldiak finantzatzen laguntzea. Euskararen sustapena. Euskararen erabilera sustatzea. Euskarazko tailer eta hitzaldi eskaintza handitzea.

Euskararen Sustapenerako Ekintza Plana

Badihardugu

1.386 €


Ahozko ondarea jasotzea, ikertzea eta hedatzea. Ahozko ondarea jasotzea. Euskalkiak eta antzinako kontuak jasota, euskalkiak eta historia aztertu eta hedatzea.



Deba Beheko bertso eskola

3.235 €

Bertsozaletasuna sustatzea. Eibarko bertso eskolaren jarduera egitaraua burutzen laguntzea. Eibarko ume eta gaztetxoek artean bertsozaletasuna handitzea.



EPEA : 2019

GASTUA: 158.970 €

BALORAZIOA: Elkarrekin egindako gastuen zuriak aurkeztu dute

IZENBURUA: DIRULAGUNTZA ERROTULUAK EUSKARAZ

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak diru-laguntza deialdia kaleratuko du Eibarren dauden edo irekiko diren merkataritza establezimenduetako errotuluak eta irudi korporatiboko elementuak euskaraz jartzen laguntzeko.



EPEA: 2019

ESKAERA EGITEKO EPEA : 2019/11/29

LANKIDEAK:


Eibar Merkataritza guneko Irekia
Eta Kitto Euskara elkarteak

GASTUA: 467,35 €

BALORAZIOA: Guztira 4 eskaera egon dira, eta 3k baldintzak betetzen zituztenez, jaso dute zegoen dirulaguntza.

IZENBURUA: AKEKIDEEN ERREGISTROA

DESKRIBAPENA: AKEBAI Batzarra osatzen duten kideek fitxa bat bete behar dute erregistratuta geratzeko eta Akekide izaera edukitzeko. Fitxa sinatzen duenak adierazten du Euskararen Plan Estrategikoarekin bat egiten duela eta kide izateak dakartzen egitekoak eta betebeharrak onartzen dituela. Sinatutako fitxak jaso eta dagokion karpetan gordetzen dira alfabetikoki ordenatuta. Datuak eskuragarri izateko eta nahi den filtroaren arabera sailkatzeko, Akekideen zerrenda [Excel taula](#) batean jasotzen da. Fitxako dataren arabera, zenbaki bat izango du Akekide bakoitzak.



●

AKEKIDE

●

EIBARKO HIRIA EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOarekin bat egiten dut, eta AKEBAI Batzarreko kide izateak dakartzen egitekoak eta betebeharrak onartzen ditut.

NORBANAKOA

ORDEZKARIA Ordezkatzen dudana talde/elkarte/erakundea:

Kontakturako datuak:

Izen-abizenak:

NAN:

Jaiotze data:

Helbidea:

Telefonoa:

Emaila:

Akekide izateaz gain, parte hartu nahi dut:

EKITALDIAK mahaian <input type="checkbox"/>	KULTURA mahaian <input type="checkbox"/>
KIROL mahaian <input type="checkbox"/>	TRANSMISIO mahaian <input type="checkbox"/>
KOMUNIKAZIO mahaian <input type="checkbox"/>	BESTERIK <input type="checkbox"/>

Data: _____

Sinadura

EPEA: 2019.urtea

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA:

2019aren bukaeran, guztira, 164 Akekide fitxa daude jasota.

IZENBURUA: AKEKIDEEN BATZARRA

DESKRIBAPENA:

AKEBAI Batzarra Akekideek osatzen dute eta plataformaren erabakigune nagusia da. Ekipoak deituko du, gutxienez urtean birritan. AKEBAI Batzarraren egitekoak zehaztuta daude [araudian](#).



DATA: 2019ko apirilaren 9a eta 2019ko abenduaren 10a

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA: Bi batzar egin dira.

[Urteko lehen batzarrean](#) 25 kide bertaratu dira.

2018ko memoria eta balantze ekonomikoa eta 2019rako plana eta aurrekontua aurkeztu dira, eta Batzarrak oniritzia eman die. Horretaz gain, AKEBAIren funtzionamenduaren inguruan egindako gogoeta saioen berri eman du Ekipoak.

[Urteko bigarren batzarrean](#) 20 Akekide bertaratu dira.

2019rako jarritako helburuak eta horiek lortzeko aurreikusitako ekintzak eta horien betetze maila erakutsi dira. Horrez gain, egitasmoen inguruko azalpenak ere eman dira.

IZENBURUA: EKIPOA

DESKRIBAPENA: Euskararen Plan Estrategikoa abian jartzeko sortu den *Eibarren* AKEBAI plataformak duen egituraren geruzetako bat da. (BATZARRA eta MAHAIAK dira bestek). Nahiz eta kide batzuk bi urtez behin aldatu (mahaietako kideak eta euskaltegietako ordezkaria) Ekipoaren osaera finkatuta dago. Oro har, urteko kudeaketa planaz eta aurrekontuaz arduratzen da. Dagozkion egitekoak [araudian](#) daude zehaztuta. Gutxienez, hilean behin batzartuko da, eta gutxienez urtean birritan deituko du Akekideen Batzarra.



EPEA: 2019

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA: Hainbat zeregini heldu dio Ekipoak urtean zehar: mahaien funtzionamendua gainbegiratu; urteko aurrekontua eta plana egin eta gainbegiratu; Batzarrak deitu; AKEBAIra iritsi diren proiektuak baloratu; diskurtsoak berritzeko eta parte-hartze zabalagoa lortzeko “Hamaika berbaldi” ekimena antolatu; AKEBAIren funtzionamenduaren inguruko hausnarketa bideratu; *Debabarreneko Euskararen Ginkana*, *Eibar BHIko musikala*, *Eusliderrak* eta *101 Ele* egitasmoak bideratu eta jarraipena egin; komunikazioa bideratu ...

Partaideak izan dira:

Udaleko euskara teknikaria, ...eta kitto! Euskara Elkarteko normalizatzailea, Udal Euskaltegiko ordezkaria; Udaleko Euskara Batzordeko zinegotzia, Komunikazio mahaiko kide bat, Kultura mahaiko kide bat, eta koordinatzailea.

Irailtik aurrera Kultura mahaiko kidea ezin izan da bileretara etorri, eta azkenean utzi egin du Ekipoa. Bere lekua inork hartu ez duenez, 6 kide izan ditu Ekipoak urtearen bukaeran.

19 bilera egin dira urtean zehar: [19/01/14](#), [19/02/12](#), [19/03/04](#), [19/03/21](#), [19/04/01](#),
[19/04/15](#), [19/05/13](#), [19/06/10](#), [19/07/15](#), [19/09/09](#),
[19/09/30](#), [19/10/21](#), [19/11/11](#), [19/11/25](#)

Asistentzia: % 87koa izan da

IZENBURUA: KULTURA MAHAIA

DESKRIBAPENA: Euskararen Plan Estrategikoa abian jartzeko sortu den **Eibarren AKEBAI** plataformak duen egituraren geruzetako bat MAHAIEK osatzen dute. BATZARRA eta EKIPOA dira besteak.

Mahaiek egunerokoan ekimenak proposatu eta garatu egingo dituzte, AKEBAI Batzarrak eta Ekipoak landutako helburuak lortzeko. Dagozkion egitekoak [araudian](#) daude zehaztuta. Gutxienez, urtean 5 bilera egingo ditu mahai bakoitzak, baina dinamiken arabera, maiztasuna egokitu egingo da.



EPEA: 2019

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA: Hainbat zeregin heldu dio mahai honek urtean zehar: hilez hile Euskararen agenda osatu eta zabaldu; zabalkunderako erabiltzen den Telegram kanalerako harpidetza errazteko bideoa prestatu; jaiak euskalduntzeko *ahobizi/belarriprest* dinamika bultzatzeko txapak eta pegatinak banatu; Udalak antolatutako ekitaldien jarraipena egin, eta euskararen presentzia handiagoa izan dadin proposamenak eta estrategia pentsatu...

Zortzi bilera egin dira urtean zehar: [19/01/26](#), [19/02/19](#), [19/03/12](#), [19/04/24](#),
[19/05/29](#), [19/06/12](#), [19/09/23](#), [19/10/30](#)

IZENBURUA: TRANSMISIO MAHAIA

DESKRIBAPENA: Euskararen Plan Estrategikoa abian jartzeko sortu den ***Eibarren*** **AKEBAI** plataformak duen egituraren geruzetako bat MAHAIEK osatzen dute. BATZARRA eta EKIPOA dira besteak.

Mahaiek egunerokoan ekimenak proposatu eta garatu egingo dituzte, AKEBAI Batzarrak eta Ekipoak landutako helburuak lortzeko. Dagozkion egitekoak araudian daude zehaztuta. Gutxienez, urtean 5 bilera egingo ditu mahai bakoitzak, baina dinamiken arabera, maiztasuna egokitu egingo da.



EPEA: 2019

GASTUA: Barne baliabideak


BALORAZIOA: Hainbat zeregini heldu dio mahai honek urtean zehar, ikastetxeen mahaiarekin elkarlanean arituta: *Jira bueltan* jolas tailerrak antolatu eta bideratu jangeletako hezitzaileentzat; familien hizkuntza egoeraren diagnostika egiteko galdetegietatik ateratako datuak bildu eta txostena eginarazi; txosten horretako ondorioak ikusita gurasoengan eragiteko egitasmoa prestatu (Super Akeak)...

Bederatzi bilera egin dira urtean zehar: [19/03/06](#), [19/06/11](#), [19/06/17](#), [19/07/11](#), [19/07/16](#), [19/07/22](#), [19/10/10](#), [19 10 15](#), [19 11 17](#)

IZENBURUA: EUSKAL ESKAINTZAREN ZABALKUNDEA

DESKRIBAPENA: AKEBAIko Kultura mahaiak hilero euskararen agenda prestatzen du. Agenda horretan Eibarren euskaraz edota euskararen inguruan antolatzen diren ekitaldien berri ematen da, eta horien zabalkundeak egiten da Eibarren AKEBAIren webgunean eta sare sozialetan (Facebook, Telegram).

Euskararen agendaren zabalkunderako ez ezik, AKEBAIren beste egitasmo batzuen berri emateko ere baliatzen dira webgunea eta sare sozialak.



EPEA: 2019. urtea

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA: 10 agenda atera dira guztira; uda partekoa izan ezik, urtarriletik abendura, hilez hil.

Zabalkunderako honako kanal hauek erabili dira: e-maila (agendaren banaketazerrenda), webguneak (eibar.eus, akebai.eus), sare sozialak (Facebook, Telegram), whatsapp taldeak

“Eibarren euskaraz” Telegram kanalak 17 kudeatzaile ditu, Eibarko kultura eragileak, eta 111 harpide. 159 informazio-mezu zabaldu dira.

akebai.eus webguneak 3.858 bisita izan ditu 1.698 erabiltzailek eginak. 28 albiste argitaratu dira 2019an.

Eibarren Akebai Facebook-ek 607 jarraitzaile ditu eta 576 lagunek atsegin dute. 31 albiste kaleratu dira.

IZENBURUA: HAMAICA BERBALDI

DESKRIBAPENA: 2019ko udazkenean (urri-abendua) 2 saio osagarri egin dira hizlari berarekin, Xabi Payarekin, euskaltzaleok janzteko. Helburua:

- Geure eskubideak ezagutzea, argudioak izatea, ahalduntzea
- Inguruan eragiteko, diskurtso berriak eta berritzaileak barneratzea.

45 lagun inguru gonbidatu dira saioetara, euskaltzale eta eragileen artean aukeratuak (Akebaiko kide aktiboak, politikoak, kiroltako ordezkariak, ikastetxeetako ordezkariak...). Deialdi itxia eta pertsonalizatua izan denez, ez da zabalkunderik egin.

Hizkuntzen 3 dimentsio eta erdi

3 dimensiones y media de las lenguas

Xabier Paya

Eibar, 2019ko urriak 15

1



EPEA: 2019 URTEA

GASTUA: Barne baliabideak
Hizlaria: 640 €

BALORAZIOA: Saioak urriaren 15ean eta azaroaren 12an egin dira. 45 lagun izan dira lehenengoan eta 38 bigarrean. Entzuleak oso gustura egon dira, eta informazio baliagarria jaso dutela adierazi dute.

IZENBURUA: MUSIKALA

DESKRIBAPENA: Ikuskizun multi-disziplinar bat (dantza, gidoigintza, antzerkia, musika, jantzigintza, kantua, komunikazioa, kudeaketa...) antolatzeko prozesuak dakartzan onura guztiak dituen, Eibarko nerabe eta gazteen egituratze sozial eta linguistikorako tresna ezin hobea da musikala.

Eibar BHI Isasi Ikastetxean horrela ikusi dute, eta Hauspoa programaren barruan sartu dute musikala. Horrela, ikasleek euskara modu ludikoan erabiltzen dute, eremu akademikotik at, eta bide batez kohesioa eta talde identitatea indartzen da.

DBHko ikasleek urritik maiatzera bitartean antzerki, kantu eta gidoigintza tailerrak izan dituzte musikala prestatzeko. Andrea Covadonga aktore eta kantaria izan da tailer horien gidari.



EPEA: 2018-2019 ikasturtea, urria-maiatza bitartean.

GASTUA: 6.750 €

BALORAZIOA: 55 ikasle, 47 neska eta 8 mutil, nagusiki DBH1ekoak (% 97), aritu dira musikala prestatzen, Andrea Covadongaren gidaritzapean (AKEBAIk finantziatuta), ikastetxeko irakasleen eta guraso elkartearen laguntzaz.

“Beldurrak” izena eman diote proiektuari. Hiru emanaldi egin dira Coliseo antzokian, eta 1.200 ikusle inguru izan dira bertan.

- Maiatzaren 2an bi emanaldi egin ziren goizean, ikasleentzat, eta 20:00etan beste emanaldi bat familientzat eta publiko orokorarentzat.

Egitasmoaren balorazioa ona da; jarritako helburuak bete ditu. Euskararen sustapenez eta kohesio lanketaz gain, aurtengo musikalak balio erantsi bat izan du: pertsona irekiak lantzeko eta genero identitatea eta ikuspegi anitzak kontuan hartzeko lanketa. “Beldurrak” antzezlanak egunero bizi duten errealitate gordinetik abiatuz, erasoen parean aurrez aurre jarri ditu gaztetxo eta nerabeak, eta bullying kasuetan ematen diren egoerak ulertzen lagundu die. Musikala, gainera, euskarazko kultur emanaldien artean erreferentzia indartsua bilakatzen ari da herri mailan eta herriko hezkuntza eremuan.

Ikasleak oso motibatuta aritu dira, eta gozatu egin dute jendaurreko emanaldietan.

IZENBURUA: EUSLIDERRAK

DESKRIBAPENA: Eibarren AKEBAIk DBHko ikastetxeekin lankidetzan *EUSLIDERRAK* egitasmoa jarri zuen martxan 2018-2019 ikasturtean. Egitasmo horretan DBH3ko ikasleek hartu zuten parte zuzen-zuzenean. Helburua hizkuntza ohituretan eragitea da, jabekuntza eta ahalduntze-prozesu baten bidez.

Hiru fase ditu:

- Moskeo kanpaina
- Saioak / tailerra
- Ekintza soziala



Bi ikasturterako programa da, 2018-2019 eta 2019-2020, bi ziklo. I. zikloko parte-hartzaile eusliderrak (boluntarioak) beraiek dira II. zikloko saioak gidatuko dituztenak.



EPEA: 2018-2019 eta 2019-2020 ikasturteak

GASTUA: 2018-2019 ikasturteko ekintza soziala: 620,62 €
II. zikloa (2019-2020 ikasturtea): 6.534 €

BALORAZIOA:

Ekintza soziala

Egitasmoaren I. zikloan parte hartu zuten 280 ikasleetatik (DBH 3ko ikasle guztiak) 66 ikasle boluntario azaldu ziren prest ekintza soziala antolatzeko. Eibarren AKEBAIren laguntza izan zuten eusluderrek, beharrezko baliabideak lortzen laguntzeko eta zabalkundea egiteko.

Apirilaren 5ean "Euskalgunea" antolatu zuten Untzaga plazan. DBH 3ko ikasleek parte hartzeko hainbat ekintza prestatu zituzten:

-Ginkana bat (*GinKLIKana*)

-Karaokea (*AhotsLiderrak*)

-Photoshopa eta moda desfilea (*ArgazKLIK* eta *EUSmoda*)

-*EUSpintxo* lehiaketa

Goizeko bederatzietan udaletxeko pleno aretoan koordinazio bilera bateratua egin ondoren, prestaketari ekin zioten. 11:00etatik 13:00ak bitartean euskaraz gozatzeko eta ohiturak aldatzeko aukera ezin hobea izan zuten Eibarko DBH3ko gazte guztiek.


Proiektuaren I.zikloa burutu ondoren, alde guztiek egindako balorazioa positiboa izan da. Aurreikusitako ekintza guztiak burutu dira, eta eragina izan dute. Ikastetxeetan euskararen erabileran alderik nabaritu ez den arren, garbi adierazi da jarraitu egin behar dela horrelako ekimenekin. Ikasleak gustura aritu dira; euskararen eta beste hizkuntzen gaineko hausnarketarako eta aurreiritzien gainean eztabaidatzeko baliatu dituzte saioak.

Kalean egindako ekintza soziala antolatzen aritu zirenak oso motibatuta ibili ziren; hobetu beharreko kontu batzuk gorabehera, positibotzat jo da, batez ere gaztetxoek gozatu egin zutelako.

II. zikloko hasierako faseak 2019ko urria-azaroa bitartean burutu dira. Aurreko ziklotik, orain DBH 4. mailan ari diren 60 bat ikasle (3 ikastetxeetakoak) azaldu dira prest prestaketarako 3 saio jasotzeko. Saio bakoitza jaso ondoren, binaka edo hirunaka, DBH 3ko ikasleei (290 ikasle) eurek eman dizkiete hizkuntza ohituretan eragiteko saioak.

IZENBURUA: JAIETAN AHOBIZI ETA BELARRIPREST

DESKRIBAPENA: AKEBAko kultura mahaiak burututako egitasmoa da. Jaiak euskaldunago egiteko asmoz, herriko jai batzordeekin harremana egin, eta jaietako txosna eta tabernetan *ahobizi* eta *belarriprest* txapak eta pegatinak banatuko dira. Helburua da gazteen hizkuntza ohiturak aldatzeko, jai eremuko tabernetan euskararen erabilera erraztea; horretarako txosna eta tabernetako zerbitzariak *ahobizi* edo *belarriprest* txapa eramango soinean, bistan. Bezeroek ere aukera izango dute nahi duten rolari dagokion pegatina hartzeko.



EPEA: 2019

GASTUA: Barne baliabideak
Txapak eta pegatinak: 915 €

BALORAZIOA: Euskal Jaian, Garagardo azokan eta San Juanetan egin da kanpaina.

Euskal Jaia, maiatzak 11-12: Artisau azokako postuetan banatu ziren txapak eta pegatinak, eta kantu afariko liburuxken barruan ahobizi-belarriprest dinamika gogoratzeko orritxoak txertatu zen. Postuetakoek, oro har, ondo bete zuten euren rola

Garagardo azokan, ekainak 11-16: zerbitzariak azalpena eman zitzaientzen, eta gehienek txapa jarrita zeukaten; baina zaila izan da baloratzea zenbateraino bete zuten rola. Hala ere, uste dugu ahobizi/belarriprest moduan identifikatuta egoteak erraztu egiten duela ohitura aldatzea, eta horrek eragina duela bai bezeroengan, bai zerbitzariengan.

San Juanetan, ekainak 23-25: ...eta Kitto! Euskara Elkartearekin elkarlanean, “*Euskeraz primeran*” kanpainarekin uztartuz, jaietan euskara erabiltzera animatzeko kartela atera zen, eta jai eremuko txosna eta tabernetan txapak eta pegatinak banatu ziren jendeari ahobizi/belarriprest dinamika gogorarazteko.

IZENBURUA: JIRA BUELTAN MATERIALAREN LANKETA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak ikastetxeetako LH1 mailako familiei *Badiharduguk* sortu duen kanta eta jolasen liburuxka-DVDa banatu die.

AKEBAiko Transmisioa mahaiak material horren lanketa egiteko eskoletako jangelen jolas orduak aprobetxatu nahi izan ditu, gune informaletan ikasgelatik at ikasleen arteko euskararen erabilera sustatzeko. Astixa Animazio Zerbitzuko begiraleek 2 saioko tailerrak eman dituzte ikastetxeetan, jangeletako hezitzaile eta HH5 eta LH1 mailako umeein (5 eta 6 urte) jolasak lantzeko.



EPEA: 2018-2019 ikasturtea, 2. hiruhilekoa, urtarrila-apirila bitartean.

GASTUA: 2.145 €

BALORAZIOA: Astixako hezitzaileak ikastetxe guztietatik pasatu dira jolasak eta abestiak irakasteko. Saioak hasi aurretik, jorratu beharreko jolasen azalpenak jantokiko arduradunei banatu zaizkie beraiek aurretik ere landuta izan ditzaten.

Guztira 68 saio egin dira, eta Astixako 4 hezitzaile aritu dira zeregin horretan. 2019ko urtarrilaren 21etik otsailaren 22ra, asteleheneetik ostiralera, 12:00etatik 14:30era bitartean eman dira saioak. Jira Bueltan liburutik 14 jolas aukeratu dira, 5 urte eta 6 urteko umeentzat egokienak. Jantokiko hezitzaileak umeein batera murgildu dira jolasetan.

Umeen harrera, orokorrean ona izan da, eta saioa aurrera joan ahala gusturago aritu dira proposatutako jolasetan.

I

ZENBURUA: DEBABARRENEKO EUSKARAREN GINKANA

DESKRIBAPENA: Kutxa Ekoguneak Euskaltzaleen Topagunearekin elkarlanean antolatutako lehiaketa da Euskararen Ginkana; euskararekin eta euskaraz dibertitzeko lehiaketa. Euskararekin, hizkuntza aniztasunarekin eta hizkuntza eta ekologiarekin lotutako hainbat proba burutu behar dituzte talde lehiakideek.

Aurten Debabarrena eskualdean egin da, eta Mutriku, Deba, Elgoibar, Soraluze eta Eibarko DBH 4ko ikasleek hartu dute parte. Debabarrenako 5 udalen babesa izango du proiektuak eta baita AKEBAIren babesa eta laguntza ere.



AURKEZPENA OINARRIAK SARIA PROBAK TALDEAK

PROBAK	EGOKERA
<p>10 puntu</p> <p>1.proba</p> <p>Heslato duz Euskararen Ginkara? 1.proba honetan 10 esaldi dituzue zuzenak edo okerrek diren azarabidekin. Zifra zati!</p>	<p>ITZEA</p> <p>EPEA: 2019/10/21</p>
<p>10 puntu</p> <p>2.proba</p> <p>2. proba datu berezitan dazokiguzu... Gau Beltza badatof eta zook? zer ospatzen dituzte?</p>	<p>ITZEA</p> <p>EPEA: 2019/10/06</p>
<p>10 puntu</p> <p>3.proba</p> <p>Ei guzuekiko oñtuzak utzararen anebora egokitzon ditugun berak, ekologiaren ikuspegiak, generatzaia da gure egunerokoa jasan ditugun produktua. Feskoen platera eta garata kontutan zateak.</p>	<p>MAITZKAN</p> <p>EPEA: 2019/10/13</p>

DATA: 2019 (urria-abendua)

GASTUA: 5.385 €

Barne baliabideak

BALORAZIOA: Eibarko DBH 4ko hiru ikastetxeetako ikasleek eman zuten izena ginkanan parte hartzeko, eta 8 talde aritu dira lehian Debarreneko beste herrietako ikasle-taldeekin batera; guztira 21 taldek hartu dute parte Debarreneko Euskararen Ginkanaren 1. edizioan. Lehenengo faseko probak burutu ondoren, puntuaziorik altuena lortu zuten 4 taldeak pasatu ziren finalera, Eibarko talde bat horien artean (Ginkanklinak). Finala Coliseo antzokian egin da, abenduaren 4an. Ekitaldi horretan finalistei honako sari hauek banatu zaizkie:

-800 euroko balioa duen saria izan da irabazlearentzat (Soraluzeko *Soragarriak*)

-2., 3. eta 4. sariak (200 eurokoa bigarrenarentzat; 100 euroko erosketa bonoak, Eibar Merkataritza Gune Irekiak emanak, hirugarren eta laugarrenarentzat) hiru taldeen artean banatu dira, berdinketa hirukoitza egon baita.

Giro ona izan da finalean, eta gazteak gustura aritu dira lehian.

IZENBURUA: FAMILIEN HIZKUNTZA EGOERAREN DIAGNOSIA

DESKRIBAPENA: AKEBAIko Transmisio mahaiak 2018an familien hizkuntza egoera ezagutzeko, ikastetxeen oniritziak eta babesaz, LH2, LH5 eta DBH2 mailetako ikasleek betetzeko galdetegia prestatu zuen. Hortik jasotako datuak bildu eta horietatik ateratako ondorioak jasotzen dituen txostena eskatu zion Soziolinguistika Klusterrari.



EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN Eibarko familien hizkuntza-egoeraren diagnostia



2.4. Etxeko hizkuntza gaitasuna eta erabilera

Aurreko ataletan aurkeztu ditugun emaitzak gurrutzatuko ditugu atal honetan, alegia, etxekoek euskararen ezagutza eta erabilera. Horrela, bi aldagai soziolinguistikoek arteko elkar-eragina sakonago antzertzeko aukera izango dugu.


Etxeko kide guztiak euskaraz dakiten familien %67,6tan euskara da etxeko hizkuntza, %4,9tan euskara eta gaztelania, eta %26,3 familietan gaztelania.

Gurasoetako bat euskalduna den familien %77,4tan gaztelania da etxeko hizkuntza nagusia, %9,7tan euskara, eta %12,9tan bi hizkuntzak erabiltzen dira.

Gurasoetako bat eta anai-arrebak euskaldunak direnean %58,3 familietan gaztelania da etxeko hizkuntza, eta %19tan euskara da.

Bestalde, guraso euskaldunak ez dagoen familietan, aurreikus zitezkeen bezala, gaztelania da etxeko hizkuntza nagusia (%70 ingurutan). Eta familia gutxi batzuetan euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen da.

6. grafiko: Etxeko hizkuntza gaitasuna eta erabilera



www.soziolinguistika.eus

8

DATA: 2019

GASTUA: Txostena: 1.815 €


Estrategia garatzeko aholkularitza: 363 €

BALORAZIOA: Maiatzean jaso da Klusterraren txostena, eta datuak eta ondorioak ikusita, erabaki da hori gizarteratzeak ez duela lagunduko egoera aldatzen. Ikusi da transmisioan eten handia dagoela euskararen erabilerari dagokionez, eta gurasoengan eragiteko estrategiaren bat pentsatu behar dela. Estitxu Garai komunikazio adituarekin landu du estrategia hori AKEBAIko mahai ezberdinetako kideez osatutako talde batek.

LH 2. mailan lantzeko egitasmo bat pentsatzea erabaki da. Maila horretako umeak protagonista bihurtzea euren gurasoengan eragin dezaten. Helburua da euskararen inguruko hainbat portaera agerian jartzea gurasoengan inpaktua sortzeko.

IZENBURUA: SUPER AKEAK

DESKRIBAPENA: LH 2. mailan landuko da egitasmoa. Euskarri ezberdinak erabiliz (komikiak, mahai-jokoak, bideoak, antzerkia, ...) euskararen inguruko hainbat portaera jarriko dira agerian, eta umeez egindako lanketa horren bitartez inpaktua sortuko da gurasoengan. Horrez gain, umeez mezu bat jasoko dute: euskarak osoago eta zoriontsuago egingo dituela. AKEk, etorkizunetik datorren pertsonaiak, misio bat jarriko die; umeez, super heroi bihurtuta (Super Akeak), Eibar hobia egiten lagunduko diote: garbiagoa, euskaldunagoa,... Bide horretan hainbat ekintza burutu beharko dituzte, balio ezberdinak landuz (euskararen erabilera, genero berdintasuna, aniztasuna, ekologia...)



DATA: 2019-2020 ikasturtea

GASTUA: Pertsonaia sortu, eta istorioa azaltzeko baliabideak: 6.938 €

Materiala, euskarriak: 1.869 €

BALORAZIOA: 2019-2020 ikasturteko lehen hiruhilekoan (2019ko iraila-abendua), egitasmoa martxan jartzeko prestaketa egin da. LHko Eibarko ikastetxe guztiei azaldu zaie egitasmoa, eta zazpiek eman diote oniritzia, prest azaldu dira egitasmoan parte hartzeko. AKE pertsonaia sortu dugu (aktorea, jantzia, ibilgailua, istorioa), eta egitasmoaren kronograma eta ekintzak zehaztu dira, 2020ko urtarriletik ekainera bitartean burutzeko.

IZENBURUA: EIBARREN ANIZTASUNA IKASGAI: 101 ELE

DESKRIBAPENA: AKEBAIren babesaz eta laguntzaz eta LHko ikastetxean lankidetzaz burutuko da *Badiharduguk* prestatutako ekimen hau. Eibarko ikastetxeetako aniztasuna jaso eta ezagutaraztea da “Aniztasuna ikasgai” proiektuaren helburuetako bat. Horrekin batera, Euskarak integrazio hizkuntza gisa duen balioa ere nabarmenduko da, guraso asko seme-alaben bitartez gerturazten baitira euskarara.


Eibarko LHko zazpi ikastetxeetan egin diren elkarrizketak izango dira proiektuaren oinarria. Testigantza horiekin bi ikus-entzunezko prestatuko dira, ikastetxeetan erabiltzeko eta jasotakoa herrian ezagutarazteko. Horrek ere balioko du familiak euskarara hurbiltzeko eta euskarak gizarteratzeko duen balioaz jabetzeko.

ahotsak.eus







101















ENGUAS
ANGUAGES
ELE

SARRERA
HONI BURUZ
ELKARRIZKETAK
HERRIAK
PROIEKTUAK
GAIAK
HIZKUNTZAK
BIDEOTEKA



101L - Aniztasuna Ikasgai

 Abbie White BELFAST (PAR IRLANDA) INGELESA	 Adrian EIBAR (EUSKAL HERRIA) EUSKARA, GAZTELANIA
 Aisha Durdi El Alaoui ()	 Arkaitz Louis EIBAR (EUSKAL HERRIA) EUSKARA, GA
 Awa Baila ()	 Axel BOLIVIA (BOLIVIA) EUSKARA, KETXUA

 Debora Carla Acosta ()	 Iker ()	 Neama Fawzy Elsayed Abdelnaby SIDI BESHER, ALEXANDRIA (EGIPTO) ARABIERA	 Reiner Marrón Arnau LA HABANA (KUBA) GAZTELANIA
 Mahnoor ()	 Maitane ()	 Rokhaya Dlaw ()	 Rüdiger Schmidt HAMELN (ALEMANIA) ALEMANIA
 Maryam EIBAR (EUSKAL HERRIA) ARABIERA, EUSKARA	 Mohamed ()	 Sebinda ()	 Shakti Tamang Moktan LALITPUR (NEPAL) NEPALERA, TAMANG
 Neama Fawzy Elsayed Abdelnaby SIDI BESHER, ALEXANDRIA (EGIPTO) ARABIERA	 Reiner Marrón Arnau LA HABANA (KUBA) GAZTELANIA	 Stefia ELGOBAR (EUSKAL HERRIA) EUSKARA, FRANTSESAL, LINGALERA	 Yuxuan ()

DATA: 2019-2020 ikasturtea

GASTUA: 11.260 €

BALORAZIOA: 2019-2020 ikasturteko lehen hiruhilekoan (2019ko iraila-abendua) elkarrizketatu gaiak aukeratu dira, bai umeak, bai gurasoak, eta zazpi ikastetxeetan grabaketak egin dira. Edizioa egin ondoren ikasturte bukaerarako prest egongo da

IZENBURUA: **EUSKARAREN EGUNA**

DESKRIBAPENA: Euskalgintzak AKEBAIren laguntzaz eta finantzazioaz antolatu du Euskararen Eguna. ***Jostorratza eta haria, saretuz herria*** lemapean.

ZATOZI!

**JOSTORRATZ
ETA HARIA
SARETUZ HERRIA**

11:00etan
DANTZALDIA

15:00etan
DANTZALDIA

15:30ean
DANTZALDIA

**KALEJIRA
UNTZAGARAINO**
17:15: Anbulatorioa
17:30: Depur
17:45: Untzaga

18:00etan
**EIBARTARROK
SAREA**
EGINGO DUGU

EUSKERAREN
EGUNA ABENDUAK 3

Eibarko EUSKALGINTZA taldea

Eibarran
AKEBAI



Euskararen Egunean

abenduak 3, asteartea
19:00etan
Udaletxeko Pleno Aretoan

**Eibarko udalbatzak
adierazpen instituzionala
gingo du
Euskararen Aldeko Ordenantza
berresteko**

Eibar EUSKALDUNAGOA gogoan

Untzagan **SAREA** egin ondoren
DENOK UDALETXERA!

Eibarran
AKEBAI


DATA: 2019ko abenduaren 3a

GASTUA: 744 €

BALORAZIOA: Abenduaren 3an, asteartea, goizean ekin zaio Euskeraren Eguna ospatzeko egitarauari, Haur Hezkuntzako haurren dantzarekin. Bazkalostean beste bi dantzaldi egin dira: 15:00etan Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailakoak aritu dira, eta 15:30ean Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailakoak. Arratsaldeko bostak aldera, anbulatorio paretik kalejira hasi da, Untzagaraino, eta bidean “Euritan dantzan” eta “Inundik inora” kantuak dantzatu dira. Untzagara ailegatuta, herritarrek EUSKERAREN SAREA osatu dute. Horrekin batera, Eibarko Euskalgintzak eta Eibarran Akebaik antolatu duten egitaraua agurtzeko, 19:00etan, [euskararen ordenantza berriaren](#) aldeko udalbatzaren adierazpen publikoa egin da, udaletxeko pleno aretoan.

IZENBURUA: EUSKARAREN ORDENANTZA BERRESTEKO ADIERAZPENA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak 2016ko ekainetik indarrean izan duena berritu, eta apirilaren 29ko saioan aho betez onartu zuen [Euskararen Ordenantza](#) berria aurreko agintaldiko Udalbatzak. AKEBAIk oraingo Udalbatzari eskatu dio ordenantzaren aldeko adierazpen instituzionala egitea, Euskararen Egunean, herritarren aurrean.



Euskararen Egunean

abenduak 3, asteartea
19:00etan
Udaletxeko Pleno Aretoan

Eibarko udalbatzak adierazpen instituzionala egingo du Euskararen Aldeko Ordenantza berresteko

Eibar EUSKALDUNAGOA gogoan

Untzagan **SAREA** egin ondoren
DENOK UDALETXERA!

Eibarren **AKEBAI**



DATA: 2019ko abenduaren 3a

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA: Euskararen Egunean udaletxeko pleno aretoan Udalbatza osatzen duten ia kide guztiak bilduta, Euskararen ordenantza berretsitu dute. Bukarera honako aldarrikapen hau egin dute: "Eibar euskaldunagoa dugu gogoan, Eibar hobea dugu gogoan".

IZENBURUA: EUSKARALDIA

DESKRIBAPENA: Topaguneak eta Eusko Jaurlaritzak abiatutako ekimenaren 2. edizioa Euskal Herri osoan gauzatuko da 2020an: azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean. Herritar euskaltzaleak aktibatuta, **hizkuntza-ohiturak aldatzea** da dinamikaren helburua; euskaltzaleak aktibatu beren egunerokoan euskaraz bizitzeko urratsak eman ditzaten.

Aurreko dinamika bera izango da eredu: **ahobizi** eta **belarriprest**. Baina edizio honetan entitateei konpromiso handiagoa eskatuko zaie; **ariguneak** (euskaraz aritzeko guneak) izendatu beharko dituzte



DATA: 2019-2020

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA: Ekipoak hala erabakita, Eibarrek Euskaraldiaren 2. edizioan parte hartzeko izena eman da. 2019an zehar, aurreko edizioaren balorazioa egin da Euskal Herri mailan, eta 2020ko ariketaren prestaketa lanak hasi dira. AKEBAIren barruan sortutako Euskaraldia batzordea aktibatu da, eta Topaguneak deitutako foroetan parte hartu dute bertako kide batzuk. 2020an herri batzordea indartzea izango da helburu, entitateekin harremanetan jarri, informazioa zabaldu eta izena eman dezaten Euskaraldian parte hartzeko. Horrez gain, norbanakoen izen-ematea ere kudeatu beharko da.

IZENBURUA: KORRIKA

DESKRIBAPENA: *Korrika*, euskararen alde Euskal Herrian zehar lasterka egiten den martxa, AEK euskaltegi elkarteak antolatua, aurten apirilaren 4tik 14ra bitartean egingo da. Eibarrera apirilaren 13an iritsiko da. Herriko beste elkarte, erakunde eta talde askok bezala, AKEBAI plataformak ere Korrikan parte hartzea da asmoa, eta Akekideon artean Eibarko ibilbideko zati bat erosi eta lekukoa eramatea.



EPEA: 2019

GASTUA: Akekideek egindako ekarpena

BALORAZIOA: AKEBAIk Eibarko ibilbideko kilometro bat (zati bat) erosi du Akekideek egindako ekarpenekin; nahi izan dutenek 5 € jarri dute horretarako. Lekukoa AKEBAIko bi kidek eraman dute. Eibarko ibilbideko 14. zatia egokitu zaigu, Astelena gastrotekatik Trinkete tabernaraino. Jende asko eta giro ona izan da ibilbide osoan.

IZENBURUA: EUSKALTEGIKO PLANTILA

DESKRIBAPENA: Euskaltegioko plantila 11 lagunez osatuta dago, 10 irakasle-normalizatzaile eta administrari bat. 2018/2019 ikasturtean, 2 irakasle-normalizatzaile jardun osoan klaseak ematen aritu dira, jardun erdian aritzeko baimena duen irakaslea bere taldearekin, idazkari akademikoak lan jardunaren erdia karguari dagozkion bestelako lanekin bete du eta zuzendaria karguari dagozkion lanak gehi jardun erdia irakasle lanetan. Demandari aurre egiteko, beste bi irakasle kontratatu behar izan dira: bat jardun osorako (irakasle bat bajaran izan dugu ikasturte osoan eta bere ordezkoa betetzeko) eta bestea jardun erdirako (jardun erdian aritzeko baimena izan duen iraskaslearen ordezkari). Irakasle bat normalizatzaile lanetan aritu da Euskara zerbitzuan, beste batek Euskararen Plan Estrategikoaren dinamizatzaile lanetan jardun du, hirugarren bat Pertsonal sailean zerbitzu eginkizunetan, eta laugarrena itzultzaile lanak egiten udalean.

Zuzendaria
Idazkari Akademikoa
4 Irakasle-normalizatzaile
Irakasle bi aldi baterako kontratatuta, ikasturte osorako.
Administraria

EPEA: 2018 - 2019 ikasturtea

BALORAZIOA:

Aurten ez da kontratatu behar izan irakasle gehiago. Daukagun plantilarekin, eta izandako baja eta baimena ordezkaturik, nahikoa izan da ikasturtean zehar eman beharreko eskola ordu guztiak eman ahal izateko.

IZENBURUA: EUSKALTEGIAREN ESKAINTZA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udal Euskaltegiak eskaintzen duen zerbitzua **16 urtetik gorakoei** zuzenduta dago. Europear Hizkuntzen Erreferentzia Markoak ezarritako **maila guztiak** eskaintzen ditu, hau da, A1etik hasita C2ra arte, **goizez eta arratsalde/iluntzeko ordutegietan**.

Neguko ikastaroan, Klaseak aurrez aurre eta autoikaskuntzan izan daitezke. Aurrez aurrekoen artean modulu ezberdinak aukeratu daitezke (Astean 10 ordu astelehenetik ostegunera, astean bitan 2,5 orduko saioetan (C1 eta C2 mailetan), ikastaro trinkoak, 100 edo 60 ordukoak (xede berezikoak badira)...

Autoikaskuntza tutoretza eta mintza-saioekin eskaintzen da.

Uda Ikastaroan, 100 orduko **aurrez aurreko** klaseak izaten dira bakarrik.

Ikastaro berezien artean, hauexek eskaintzen dira: Etorkinentzako harrera ikastaroa (AISA), Mintza-praktika ikastaroak, jubilatuei, gurasoei... zuzendutako ikastaroak, enpresetakoak, IRALEkoak...

Azterketa prestakuntza eta HABEko **azterketa deialdietara aurkezteko aukera** ere eskaintzen da. 2018-2019 ikasturtean, A1, A2 eta B1 **mailak egiaztatu** ahal izan dira Euskaltegian ebaluazio jarraituaren bitartez.

Euskaltegiak **Liburutegi zerbitzua** (mailari egokitutako liburuak maileguan) eta **Ordenagailu gela** (euskara ikasteko Internetek eskaintzen dituen baliabideak) ere erabiltzeko aukera ematen die ikasleei.



EPEA: 2018-2019 ikasturtea

BALORAZIOA: Maila guztiak eman dira. Aipatzekoa da C2 maila lantzeko taldeak osatzea oso zaila dela, eta azken urteotan, urtero lortu dela maila horretako talde bat izatea.

Ikasle gehienek aurrez aurreko eskolak aukeratu badituzte ere, autoikaskuntzan 30 ikasle izan ditugu.

Ikastaro eta talde berezien artean, hauexek izan ditugu: *Gurasoak ere eskolara* kanpainatik sortutakoak (2 talde), Jubilatuen talde bat, eta beste bat DEBEGESA enpresan, azken hau autofinantzatutakoa, hau da, HABEren diru-laguntzatik at.

IZENBURUA: MATRIKULA EPEAK ETA EGUTEGIA

DESKRIBAPENA: Ikasturtea bi alditan banatzen da, negu ikastaroa (urria-ekaina) eta uda ikastaroa (ekaina-uztaila). Negu ikastaroaren matrikulaldi nagusia irailean izaten da, baina urtarrilean berriz zabaltzen da eskaerari erantzuteko eta taldeak osatzeko. Uda ikastaroaren matrikulaldia, ostera, ekainean izaten da. Negu ikastaroa urriaren lehenengo lanegunean hasten da eta San Juan jaien aurreko azken lanegunean amaitzen. Uda ikastaroa San Juan jaiak igaro eta lehenengo lanegunean hasten da eta 20 laneguneko iraupena du.

2018/2019

IRAILA							URRIA							AZAROA							ABENDIA								
As	At	Az	Os	Ot	La	Ig	As	At	Az	Os	Ot	La	Ig	As	At	Az	Os	Ot	La	Ig	As	At	Az	Os	Ot	La	Ig		
					1	2	1	2	3	4	5	6	7						1	2	3	4						1	2
3	4	5	6	7	8	9	8	9	10	11	12	13	14	5	6	7	8	9	10	11	3	4	5	6	7	8	9		
10	11	12	13	14	15	16	15	16	17	18	19	20	21	12	13	14	15	16	17	18	10	11	12	13	14	15	16		
17	18	19	20	21	22	23	22	23	24	25	26	27	28	19	20	21	22	23	24	25	17	18	19	20	21	22	23		
24	25	26	27	28	29	30	29	30	31	26	27	28	29	30	24	25	26	27	28	29	30	31							

URTARRIA							OTSAILA							MARTXOA							APIRILA								
As	At	Az	Os	Ot	La	Ig	As	At	Az	O	Ot	La	Ig	As	At	Az	Os	Ot	La	Ig	As	At	Az	Os	Ot	La	Ig		
					1	2														1	2	3						1	2
7	8	9	10	11	12	13					1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	8	9	10	11	12	13	14		
14	15	16	17	18	19	20	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	15	16	17	18	19	20	21		
21	22	23	24	25	26	27	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	22	23	24	25	26	27	28		
28	29	30	31	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	29	30										

MAIATZA							EKAINA							LITZAILA							IRAILA									
As	At	Az	Os	Ot	La	Ig	As	At	Az	Os	Ot	La	Ig	As	At	Az	Os	Ot	La	Ig	As	At	Az	Os	Ot	La	Ig			
					1	2														1	2	3	4						1	2
6	7	8	9	10	11	12	3	4	5	6	7	8	9	8	9	10	11	12	13	14	5	6	7	8	9	10	11			
13	14	15	16	17	18	19	10	11	12	13	14	15	16	15	16	17	18	19	20	21	12	13	14	15	16	17	18			
20	21	22	23	24	25	26	17	18	19	20	21	22	23	22	23	24	25	26	27	28	19	20	21	22	23	24	25			
27	28	29	30	31	24	25	26	27	28	29	30	29	30	31	26	27	28	29	30	31										

EPEA: 2018-2019 ikasturtea

BALORAZIOA: HABEk ezartzen dituen epeak errespetatu dira eta egutegia bete da. Hala ere, epez kanpo etorri den pertsonari dagoen eskaintza azaldu zaio eta matrikulatzeko aukera izan du.

IZENBURUA: TASAK ETA TARIFA BEREZIAK

DESKRIBAPENA: Eibarko Udal Euskaltegiak euskara ikasteko ezarrita dauzkan prezioak ordaintzeko orduan erraztasunak emate aldera, tarifa bereziak jarri ditu zenbait kolektiborentzat. Ezinbestekoa da Eibarren erroldatuta egotea tarifa berezi hauetaz baliatzeko. Ikusi [ORDENANTZA FISKALAK](#)



EPEA: 2018-2019 ikasturtea

GASTUA: 22.482,95 €

BALORAZIOA:

Ikasturte honetan 122 ikaslek izan dute tarifa bereziren bat (% 63,9)

- Aurreko ikasturteko asistentziagatik 4 ikasle (% 2,1)
- DBE-RGI izateagatik: 5 (% 2,6)
- Guraso izateagatik: 51 (% 26,7)
- Dendari, ostalari edo zerbitzuen sektorekoa izateagatik: 12 (% 6,3)
- Enplegatua izateagatik: 0 (% 0,0)
- 65 urte edo gehiago izateagatik: 10 (% 5,2)
- Langabetua izateagatik: 25 (% 13,1)
- Ikasle izateagatik: 15 (% 7,9)

IZENBURUA: TALDEAK, ORDUAK ETA IKASLE KOPURUA

DESKRIBAPENA: 2018/2019 ikasturtean 191 ikasle ibili dira Euskaltegian 16 taldetan banatuta, guztira 32.252 ordu eman dira Neguko eta Uda Ikastaroaren artean.

2018/2019		Talde kopurua	Emandako ordu kopurua	Ikasle kopurua
Negu Ikastaroa	Aurrez aurre	15	30.352	142
	Autoikaskuntzan	-	-	30
Uda Ikastaroa	Aurrez aurre	2	1.900	19

Maila guztiak eman dira:

A1	A2	B1	B2	C1	C2
OINARRIZKO ERABILTZAILEA		ERABILTZAILE AURRERATUA		ERABILTZAILE ADITUA	
Hasierako erabiltzailea	Oinarrizko erabiltzailea	Erabiltzaile independentea	Erabiltzaile aurreratua	Erabiltzaile gaitua	Erabiltzaile aditua
- Talde 1 337 ordukoa - 2 talde 100 ordukoak (gurasoak) 35 ikasle	- Talde 1 337 ordukoak - talde 1 100 ordukoa (jubilatua) 22 ikasle	- Talde 2 337 ordukoa - Talde 1 100 ordukoa (jubilatua) 20 ikasle	- 2 talde 337 ordukoak - Talde 1 100 ordukoa (Uda Ikast.) 35 ikasle	- 2 talde 337 ordukoak - Talde 1 100 ordukoa (Uda Ikast.) - Talde 1 6 ordukoa C1etik gora (Debegesa) - Talde 1 21 ordukoa C1etik gora (Debegesa) 39 ikasle	- Talde 1 274 ordukoa (+ tutoretza orduak autoikas- kuntzan) 10 ikasle
Autoikaskun. 3 ikasle	Autoikaskun. 1 ikasle	Autoikaskun. 7 ikasle	Autoikaskun. 7 ikasle	Autoikaskun. 12 ikasle	Autoikaskun.

EPEA: 2018-2019 ikasturtea

BALORAZIOA: 2018-2019 ikasturtean, aurreko ikasturtean baino 25 ikasle gutxiago izan ditugu. Orduei dagokienez, 1.027 ordu gehiago eman dira. 16 talde izan ditugu aurten, iaz baino 2 gutxiago. Aurten ez da egon C1eko astean 5 orduko talderik, ezta ere, AISA eta IRALEko talderik. *Gurasoak ere eskolara* kanpainatik 100 orduko 2 talde izan ditugu. Taldeetan ratioa altuagoa izan da.

IZENBURUA: IKASLEAREN PROFILA**DESKRIBAPENA:** 2018/2019 ikasturteko ikaslearen profila ondorengoa da:

Sexua:	
Emakumezkoak	142 (% 74,3)
Gizonezkoak	49 (% 25,7)
Ikasketa maila:	
Unibertsitate-gradua	64 (% 33,5)
UBI-LHII	69 (% 36,1)
Eskola graduatua	45 (% 23,6)
Beste	13 (% 6,8)

Lan egoera:	
Lanean edo ikasten:	137 (% 71,7)
Langabezian:	54 (% 28,3)
Adina:	
16 - 25	38 (% 19,9)
26 - 30	12 (% 6,3)
31 - 35	20 (% 10,5)
36 - 45	60 (% 31,4)
46 - 50	23 (% 12)
>50	38 (% 19,9)

**EPEA:** 2018-2019 ikasturtea

BALORAZIOA: Betiko joerari jarraituta, ikasleen profilari begira, ikasle gehienak, % 74,3 emakumezkoak izan dira. Titulazioari erreparatuta, gehienak titulaziodunak (goi eta erdi mailakoa edo goi mailako lanbide heziketa), eta batez besteko adina 36 – 50 urtekoa. Azken urteotan bezala, langabetuen kopurua altua izan da: % 28,3.

IZENBURUA: KANPO EKINTZAK

DESKRIBAPENA: Ikasturtean zehar euskaltegiko jarduna osatzeko asmoz eta ikasleak euskaltegiko esparrutik kanpo euskara entzun eta erabiltzeko helburuarekin egiten diren ekintzak dira. Batzuk euskaltegiak berak antolatzen ditu, beste batzuk Euskara Sailak edo Kultura Sailak eskaintzen dituzte eta beste hainbat Eibarko talde eragile batzuek programatzen dituzte. Eskaintza aztertu egiten da eta ikastaldearen euskara maila kontuan hartzen da proposamena taldeetan zabaltu baino lehen, baldin eta ekintza hori eskola orduetan egiten bada. Bestelako ekintzen berri zabaltzen da eta ikasleak animatzen ditugu parte hartzera. Uda ikastaroan ez da kanpo ekintzarik antolatzen.



EPEA: 2018-2019 ikasturtea

2018ko URRIA	<ul style="list-style-type: none"> • “Euskaraldia”ren aukezpena AKEBAIren eskutik. Euskaltegian
2018ko AZAROA	<ul style="list-style-type: none"> • BERBETAN programaren aurkezpena “... eta kitto” euskara elkartearen eskutik. • Gaztañerre (apainketa eta informazioa). Euskaltegian • “Eibarko emakumeen aztarnak” erakusketa Portaleko aretoan
2018ko ABENDUA	<ul style="list-style-type: none"> • Gabonetako otarraren zozketa. Euskaltegian • Euskararen eguna . Euskaraldiaren bukaera. Untzagan.

2019ko URTARRILA	<ul style="list-style-type: none">• San Blas opilak egiten. Portaleko sukaldaritza gelan.
2019ko OTSAILA	<ul style="list-style-type: none">• Antzerkia: IKASGAIA. Coliseo antzokian.• "Nano ipuin lehiaketa". AEK, Udal Euskaltegia/Euskara Saila.• Filmazpit: "Fantasiatzko eta beldurrezko zinemaren XX. astea". Portaleko areto nagusian.
2019ko MARTXOA	<ul style="list-style-type: none">• "Hozkailua" antzezlan. Antzerki jardunaldiak. Coliseo antzokian• "Lurrak" antzezlan. Antzerki jardunaldiak Coliseo antzokian.• "Aldaketa klimatikoak Euskal Herrian izan ditzakeen eraginez" hitzaldia. Portaleko areto nagusian.• "Dantza ikastaroa" Portaleko ikastaro gelan.
2019ko APIRILA	<ul style="list-style-type: none">• "Erdaldun berrien kluba" Portaleko areto nagusian.
2019ko MAIATZA	<ul style="list-style-type: none">• Jabier Muguruzaren kontzertua. Coliseo antzokian.• "Argiaren hautsa" antzezlan. Coliseo antzokian• Armagintza museora bisita.
2019ko EKAINA	<ul style="list-style-type: none">• Filmazpit: "Tomboy". Portaleko areto nagusian• Datorren ikasturteko Udal Euskaltegien kanpainarako grabazioa Durangon.

GASTUA: 535,69 €

BALORAZIOA: Orokorrean ona izan da. Baina beti kontuan hartu behar da, ekintza batzuetan ikasleak berak hala nahi duelako parte hartu duela eta beste batzuetan irakasleak edo taldeak bultzatuta; azken hauetan normala da denon satisfazio maila berdina ez izatea.

IZENBURUA: LIBURUTEGI ZERBITZUA

DESKRIBAPENA: Euskaltegiak ikasleen eskura jartzen du liburuen mailegu zerbitzua. Euskaltegian matriculatuta dagoen ikasle orok du zerbitzu hau erabiltzeko aukera. Ikasleak liburua aukeratu du, batzuetan irakasleak gomendatuta eta beste batzuetan bere gustuz, eta dagokion fitxa bete ondoren etxera eraman dezake. Liburua bueltatzeko epea 3 hilabetekoa da. Eskaintzen diren liburu gehienak eleberriak dira; izan ere, hauek dira errazen irakurtzen dituztenak. Urtero liburu berriak erosten dira, argitaletxeen nobedadeak ikusi eta gero edota irakasle edo ikasleren batek gomendatuta.



EPEA: 2018-2019 ikasturtea

GASTUA: 711,61 €

BALORAZIOA: Ikasleek eskertzen dute zerbitzu hau; izan ere, Udal Liburutegiak liburuak irakurtzeko eskaintzen dien epea motza da ikasle askorentzat. Eta gainera liburu askok eta askok, paper batean, liburu barruan, ikasleen iritzia dute idatzita. Ikasturte honetan 44 liburu erosi dira, ikasleek 200 aldiz erabili dute mailegu zerbitzu hori eta 13 liburu daude erreklamatu itzuli ez direlako.

IZENBURUA: EGIAZTATZEGINTZA

DESKRIBAPENA: A1, A2 eta B1 mailak ebaluazio jarraituaren bidez egiaztatzen dira. Horretarako, ikasleek euskaltegian maila emateaz gain, beste baldintza batzuk ere bete behar dituzte (gutxieneko asistentzia, laginak jasotzea...). B2, C1 eta C2 mailetan, berriz, maila egiaztatzeko ikasleak azterketa ofizialetara aurkeztu behar izaten dira. Euskaltegietakiko ikasleek, baldintza batzuk betez gero, HABEren deialdi itxietara aurkezteko aukera izaten dute, baina badaude beste aukera batzuk maila egiaztatzeko, besteak beste, HABEren deialdi librea irailean, EGA (aurten deialdi bakarra egon da eta azkena izan da) Hizkuntza Eskolako azterketak, IVAPekoak...

		HABE		EUSKO JARRAITZEA		187/2017 Dekretua		297/2010 Dekretua	
		EHAA 138 zk. - 2017ko uztaileak 20		EHAA 219 zk. - 2010eko azaroak 15					
		B 1	B 2	C 1	C 2				
EUSKARAREN EZAGUTZA EGIAZTAGIRIEN ARTEKO BALIOKIDETZAK HIZKUNTZEN EUROPAKO ERREFERENTZIA MARKOARI EGOKITIAK	HIZKUNTZEN EUROPAKO ERREFERENTZIA MARKOIA	B1 maila - 1. maila	B2 maila - 2. maila	C1 maila - 3. maila	C2 maila - 4. maila				
	HABE	B1 maila - 1. maila	B2 maila - 2. maila	C1 maila - 3. maila	C2 maila - 4. maila				
	HAEI - IVAP	1. hizkuntza-eskakizuna	2. hizkuntza-eskakizuna	3. hizkuntza-eskakizuna	4. hizkuntza-eskakizuna				
	Osakidetzak	1. hizkuntza-eskakizuna	2. hizkuntza-eskakizuna	3. hizkuntza-eskakizuna	4. hizkuntza-eskakizuna				
	Ertzaintza		1. hizkuntza-eskakizuna	2. hizkuntza-eskakizuna		(1)			
	Hezkuntza Saila		Irakaspostuen 1. HE	Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) Irakaspostuen 2. HE					
	Nafarroako Gobernua Hezkuntza Saila			Euskararen Gaitasun Agiria (EGA)					
	Iparraide Euskararen Erakunde Publikoa			Euskararen Gaitasun Agiria (EGA)					
	Euskaltzaindia			D agiria	B agiria				
	Eusko Jaurlaritzak								
Eusko Jaurlaritzak	Hezkuntza Saila		HLEA (Hizkuntzako Langileen Euskarara Agiria)						
	Hizkuntza Eskola Ofizialak	3. maila (Antzinako ikasketen plana) Tarteko Maila	4. maila (Antzinako ikasketen plana) Maila Aurreratua	5. maila edo eskal gaitasun maila (Antz. nako ikas-eta plana) Gaitasun Maila (C1)		(2)			
	Hizkuntza Eskola Ofizialak								

EPEA: 2018-2019 ikasturtea

BALORAZIOA: 2018ko 2. deialdian 15 ikasle aurkeztu dira HABEko azterketaren batera, eta 8k lortu dute agiria eskuratzea (% 52k). 2019ko 1. deialdian, berriz, 34 ikasle aurkeztu dira, eta 13k lortu dute agiriren bat (% 38k). Hala ere, esan beharra dago 5 ikasle ez direla ahozko probara aurkeztu Hizkuntza Eskolan edo IVAPen gainditu zutelako, guztira %53k lortu du agiriren bat.

laz bezala, A1, A2 eta B1 mailak ebaluazio jarraituaren bidez egiaztatu dira. Horretarako ezinbestekoa izan da maila gainditzeaz gain, % 75eko asistentzia izatea eta ebaluazio laginak (diagnosia, tarteko jarduerak eta ikastaro bukaerakoa) jasota izatea. Baldintza horiek beteta, A1 maila 6 ikaslek lortu dute (% 29k), A2 maila 10ek (%59k) eta B1 maila 7k (% 27k).

IZENBURUA: HABEren AZTERTZAILEAK

DESKRIBAPENA: Urtero HABEk maila egiaztatzeko 2 deialdi egiten ditu, bata maiatza-ekaina aldera (deialdi itxia) eta bestea urria-azaroa aldera (deialdi itxia zein irekia) eta azterketa hauek zaintzeko eta zuzentzeko irakasleak behar izaten ditu. Eibarko Udal Euskaltegiak maila guztietan ditu aztertzaileak, honela banatuta: B1 mailan, Jon Sasiain; B2 mailan, Xabier Gezuraga; C1 mailan, Itziar Garitagoitia eta Arantza Iriondo eta C2 mailan, Nerea Beitia. A1 eta A2 mailetan ere, nahiz eta ebaluazio jarraitua egin, Sorkunde Juaristi da horko aztertzailea. Azterketa deialdi bakoitzaren aurretik Bateratze Saioak antolatzen ditu HABEk eta horietan parte hartzen dute maila guztietako aztertzaileek azterketak zuzentzeko orduan irizpide bateratuak izateko.



EPEA: 2018-2019 ikasturtea

GASTUA: Bateratze saioetara joateko egiten diren Km-ak.

BALORAZIOA: Komenigarri irizten diogu maila guztietan aztertzaileak izateari; alde batetik, gure ikasleei irizpideak eta aholkuak emateko eta bestetik, profesionalak garen aldetik, gure lanean etengabe eguneratuak egoteko. HABEren bateratze saioen ondoren, saiatzen gara gure artean, eta denon parte hartzearekin, antzeko saioak egiten, Eibarko Udal Euskaltegiko irakasleok maila guztien ikuspegi orokorra izan dezagun.

IZENBURUA: FORMAZIOA

DESKRIBAPENA: Udal Euskaltegiko langileek etengabeko formazioa jasotzen dute, besteak beste, euren lana eguneratzeko eta eskabide berriei erantzuteko. Formakuntza hori, gehienetan, didaktika arloan zein administrazio arloan izaten da, beti ere, kontutan hartuta unean uneko beharrak, eskaintzak eta eskabideak zein diren.



EPEA: 2018-2019 ikasturtea

GASTUA: 5.926,35 € + Udalak langile guztientzat antolatzen dituenak.

DESKRIBAPENA:

IKASTAROA	ANTOLATZAILEA	TUTOREA	PARTE HARTZAILEA
HEOCaren A1 mailaren egiaztatzailea-Aztertzailagaien bateratze-saioak	HABE	Galder Lizarralde	M. Karmen Isasti
HEOCaren A2 mailaren egiaztatzailea-Aztertzailagaien bateratze-saioak	HABE	Patrizia Rozas	Sorkunde Juaristi
HEOCaren B1 mailaren egiaztatzailea-Aztertzailagaien bateratze-saioak	HABE	Julio Aparicio	Jon Sasiain
HEOCaren B2 mailaren egiaztatzailea-Aztertzailagaien bateratze-saioak	HABE	Xabier Zubizarreta	Xabier Gezuraga

IKASTAROA	ANTOLATZAILEA	TUTOREA	PARTE HARTZAILEA
HEOCaren C1 mailaren egiaztatzailea-Aztertzailegaien bateratze-saioak	HABE	Lourdes Isart	Itziar Garitagoitia Arantza Iriondo
HEOCaren C2 mailaren egiaztatzailea-Aztertzailegaien bateratze-saioak	HABE	Aitziber Larramendi	Nerea Beitia
EGA bateratze saioak	Hezkuntza Saila	Eskarne Galdos	Itziar Garitagoitia
Idazkuntzaren hasi-masiak	Euskaltea	Julia Marín	Euskaltegiko irakasle guztiak
Ahoskera: Euskararen prosodiarantz	Euskaltea	Julia Marín	Euskaltegiko irakasle guztiak
HEOCaren C1 mailaren egiaztatzailea-Aztertzailegaien bateratze-saioak	HABE	Iñaki Villoslada	Arantza Iriondo
HEOCaren B1 mailaren egiaztatzailea-Aztertzailegaien bateratze-saioak	HABE	Julio Aparicio	Jon Sasiain
Zibersegurtasuna	Eibarko udala	Basque Cybersecurity Centre	Arantzazu Barrutia, Arantza Iriondo eta Sorkunde Juaristi
Gatazken kudeaketa	Eibarko udala	Aurkene Redondo (ENBOR kontsultoreak)	Arantzazu Barrutia, Karmen Bikuña, Idoia Argoitia eta Sorkunde Juaristi.
Ez utzi biharko gaur egin dezakezuna	EHU/Eibarko udala	Rakel Gamito(EHU)	Euskaltegiko irakasle guztiak

IZENBURUA: ARMERIA ESKOLA

DESKRIBAPENA: 'Laneko komunikazioa euskaraz' zeharkako ikastaroa klase orduan txertatzeko proposamena egin du Armeria Eskolako Hizkuntza Normalkuntza Batzordeak eta 2019-2020 ikasturtean, Telekomunikazio eta Sistemak zikloan proiektu pilotua abian jarri du.

Eibarko Udal Euskaltegiarekin adostuta, lehenengo eta bigarren mailako ikasleei mailakatze proba egin zaie urtearen hasieran eta bi talde sortu dira: B2 mailara hurbiltzen zirenak (8 ikasle) eta euskaraz bat ere ez zekitenarena (8 ikasle).



Azarotik otsailera bitartean 60 orduko ikastaroa jaso dute ikasleak. Saioak astearte eta asteazkenetan izaten dira, 09:00etatik 11:00etara. A0 maila daukatenek 3 ordu astean ematen dituzte eskolak, hasierako lan hizkuntza eta euskal bizimoduari buruz ikasiz. B2 maila daukatenek, aldiz, proiektu teknikoan ahozko aurkezpenak lantzen ari dira.

BALORAZIOA: Euskara ez zekitenekin aurreikusitakoa bete da. Ikasleek euren burua eta taldea aurkezten ikasi dute, baita euren aberria deskribatzen ere. B2koekin mintzamena landu dugu (eztabaidak, gaien aurkezpenak ...) Ikasleek orokorrean ondo baloratu dute ikastaroa.